

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2020ko urtarrila / 301. zenbakia

www.oñati.eus  



GURE SOKAREN GORULARIAK

Oñatz dantza taldeak 50 urte beteko ditu aurten. Hilero ekitaldi bat antolatuko du herritarrekin batera ospatzeko.

2020ko UDAL AURREKONTUAK


17,2 milioi

► 2020ko aurrekontuak onartu ditu udalbatzak, EH Bilduren aldeko botoz eta EAJren abstentzioarekin ► Inbertsioetara 1,8 milioi bideratuko dira

17.210.349 euroko aurrekontua izango du udalak hasi berri dugun urtean. Abenduaren 19ko osoko bilkuran onartu ziren 2020ko aurrekontuak, EH Bilduren aldeko botoz eta EAJren abstentzioarekin.

Diru sarrerak eta gastuak parean dituen aurrekontua da. Orokorrean, mantendu egiten dira udal zerbitzu guztiak eta herriko eragileei zuzendutako diru laguntzak, eta horrez gain 1.746.456 euro bideratuko dira inbertsioetara (kiroldegiko obrarako diru saila 2019ko aurrekontuetan dago jasota osorik). Azpimarratzekoa da, 1,1 milioi euroko aurrezki arrunt garbia aurreikusten dela aurrekontuan. EAJ abstenitu egin zen, baina gobernu nahiz oposizioak positiboki baloratu zuten adostasuneran iristeko egindako ahalegina.

► AURREKONTUA DEPARTAMENTUKA



► DIRU SARRERAK KAPITULUKA

I. ZUZENKO ZERGAK (kontribuzioa, ibilgailuak, gainbalioa, jarduera ekonomikoak...)	3.944.300
II. ZEHARKAKO ZERGAK (obra baimenak...)	230.000
III. TASAK ETA BESTE SARRERA BATZUK (zaborra, kiroldegia, etxez etxeko laguntza...)	2.277.832
IV. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK (Foru fondoa, gizarte zerbitzuetako laguntzak...)	8.779.894
V. ONDARE-SARRERAK (Oñargi, Ur Jauziak)	1.139.801
VII. KAPITAL TRANSFERENTZIAK (Hirigintza kuota (%10), diru laguntzak inbertsioetarako...)	382.770
VIII. FINANTZA AKTIBOAK (kapital itzulketak, interesak...)	28.000
IX. FINANTZA PASIBOAK (mailegua)	427.750

► GASTUAK KAPITULUKA

I. PERTSONAL GASTUAK	5.897.564
II. ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK (konponketak, argindarra, garbiketa, bulego materiala, etxez etxeko laguntza zerbitzua, lorezantza...)	5.749.773
III. FINANTZA GASTUAK (maileguen interesak)	52.976
IV. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK (Aloña Mendi, musika eskola, kultur taldeak, hirugarren mundua...)	3.394.403
V. KREDITU GLOBALA	0
VI. INBERTSIO ERREALAK	1.786.456
VII. KAPITAL TRANSFERENTZIAK (Mankomunitateari diru laguntzak inbertsioetarako...)	50.000
VIII. FINANTZA AKTIBOAK	28.000
IX. FINANTZA PASIBOAK (amortizazioa)	251.173

• Udal gobernu taldearen (EH Bildu) ikuspuntua

Kiroldegia berritzeaz gain, ia 1,8 milioi bideratuko dira inbertsio berrietara

Agintaldiko aurreneko aurrekontuak atera ditu aurrera EH Bilduren gobernu taldeak. Ardura handiz landutako aurrekontua dela adierazi du Izaro Elorza alkateak, kiroldegia berritzeko eskatutako maileguak (8,5 milioi) baldintzatu egingo duelako udalaren jarduna da-tozen urteetan.

Diru-sarrerei dagokionez, %0,67ko igoera orokorra aplikatuko da udal zerga eta tasetan. Kiroldegiko tasetan 300 mila euroko jaitsiera aurreikusten da (obrak direla eta), baina gastu arrunta ere jaitsi egingo da, kiroldegiko zerbitzuak murriztu egingo direlako. Bestalde, Foru Funtsan 256 mila euroko igoera aurreikusten da, eta kapital transferentziak ere 328 mila igoko dira, Natur Eskola eraberritzeko lortutako diru laguntzari esker.

Gainerakoan, mantendu egiten dira udal zerbitzuak eta herriko eragileei zuzendutako diru laguntza guztiak, eta, gainera, ia 1,8 milioi bideratuko dira inbertsio berrietara. Hori guztia kontuan hartuz, azpimarratzekoa da milioi bat euro inguruko aurrezki arrunt positiboa aurreikusten dela aurrekontuan, "horrek udalaren egonkortasun ekonomikoa bermatzen duelarik" adierazi zuen alkateak.

EGITASMOAK ARLOKA

Aurrekontuen gorabeherak azaldu ostean, aurtengo egitasmo nagusiak zerrendatu zituen Izaro Elorza alkateak, arloz arlo.

Sozioekonomia arloari dagokionez, Tokiko Merkataritza Plana eguneratuko du udalak. Horrez gain, ekintzailetasuna bultzatzen jarraituko du Olaburu eta Olalan guneen bidez, eta turismo arloko ekintzetarako diru saila ere matendu egingo da

Hirigintza eta Zerbitzuak arloan, udal brigada indartuko da, tresneria eta makineria berria erosiz (31 mila). Bestalde, 130 mila euro bideratuko dira San Lorentzo eta Olakua auzoetako irisgarritasuna hobetzera, eta 15 mila Berezaoko oinezkoen bidea egokitzera. Argiteria publikoa berritzera 80 mila euro bideratuko dira eta Oñatiko sarrera (Otaui

INBERTSIO NAGUSIAK



- **San Lorentzo eta Olakuako** irisgarritasun lanak **130.000 €**
- **Eltzia** eraikineko berritze lanak **120.000 €**
- **Ugarkaldeko** jolas pakea estaltzea **118.000 €**
- **Araotzeko** auzo-ostatu lanak amaitzeko **90.000 €**
- **Natur Eskolako** berritze lanak amaitzeko **80.000 €**
- Gaztetxoentzako **jolas parke** berria (sokak, sareak...) **60.000 €**
- **Ugarkaldeko** jolas pakea estaltzea **118.000 €**
- **Kaleko argiteria** beritzeko (LED teknologia) **80.000 €**
- **Urgain** eskolako forjatu sanitarioa **60.000 €**
- **Olapoto-Mojasoro** ingurua egokitzea **30.000 €**
- **Duruko** udal jabetzako artzain txabolak eraberritzea **20.000 €**
- **Komuna** egokitzea Elorregiko autobus geltokian **20.000 €**



Oharra: Kiroldegiko obretarako diru saila 2019ko aurrekontuan dago jasota oso osorik, lan gehienak aurtun egingo badira ere.

eta Torreauzo artean) ere egokituko da (20 mila)

Auzoak, landa garapena eta ingurumen batzordeari dagokionez, 'Auzotasuna' programarako 110 mila euroko diru saila mantentzen da eta 120 mila bideratuko dira auzoetan egin beharreko inbertsioetara. Araotzeko auzo-ostatu (90 mila) eta natur eskolako eraberritze lanak (80 mila) amaituko dira, eta herri onurako mendietako pistak (40 mila) eta auzo-bideak (30 mila) konpontzeko diru sailak jaso dira. Gainera, udal jabetzako Duruko artzain txabolak berrituko dira (20 mila).

Elorregiko autobus geltokian komuna egokitzeko 42 mila euroko diru atala ere bereiztu da. Berez, diputazioak egin beharrekoa dela uste du udalak, baina aldundiaren erantzun eza ikusita, arazoari irtenbidea emateko prest dago udala, eskualdeko beste udalari batzuekin batera.

Berdintasun arloak ardatz izaten jarraituko du udalarentzat, eta %1,06ko igoera izango du aurrekontuan. Berdintasun Plana ebaluatu eta eguneratu egingo da (30 mila), eta ekintzetarako 40 mila euro bereiztu dira. Jabetze Eskolak ere 40 mila euroko dotazioa izango du, Berdintasun Kontseiluak 20 mila eta *Selma Huxley* bekak 10 mila.

Partaidetza arloak ere berriazko pisa izango du aurrekontuan, herritarren artean partaidetzaren kultura eta izaera komunitarioa indartzen jarraitu nahi baitu udalak. Ildo horretan, iaz egin ziren Partaidetzazko Aurrekontuetan herritarrek aukeratutako 500 mila euroko proiektuei amaiera emango zaie. Besteak beste, hauek: Ugarkaldeko jolas parkea estaltzea (118 mila); gaztetxoentzako soka bidezko jolas parkea (60 mila); 'Emakumeen Etxea' martxan jartzeko diagnostikoa (12,5 mila), besteak beste.

Bestalde, Eltzia eraikineko berritze lanekin jarraitzeko 120 mila euroko diru atala bereiztu da.

Ongizatera edo gizarte zerbitzuetara bideratutako diru sailak ere %1,62ko igoera izango du. Etxez-etxeko laguntza zerbitzura 820 mila euro bideartuko dira,

gizarte larrialdietako diru laguntzetara 165 mila, eskuhartze psiko-sozialera 200 mila, eta jubilaturen etxeko hobekuntzak egiteko 20 mila, besteak beste.

Hezkuntza arloan mantendu egingo dira zerbitzuak, baina azpimarratzekoa da helduentzako Esperientzia Gela martxan jartzeko asmoa dagoela (20 mila). **Haurrak** eta **Gazteria** arloan mantendu egiten dira jarduera sozio-kulturalak (51 mila) eta sormen lanak (15 mila) sustatzeko diru laguntzak. Kiroletan 20 mila euroko diru atala dago Azkoagaineko irisgarritasun arazoak bideratzen hasteko.

Kultura arloan mantendu egiten dira diru sail gehienak, eta indartu egiten dira kultura promozioa (12 mila), hitzaldi eta erakusketak (7 mila) eta kultur taldeentzako diru laguntzak (80 mila). **Euskara** arloan, 'Euskarak 365 egun' egitasmoaren baitan, 20 mila bideratuko dira Auzoko berbalaguna ekimenera, eta 9 mila euskalgintzako ekimenetara.

OPOSIZIOARI ERANTZUNEZ

Oposizioak egindako proposamenei dagokienez, alkateak azaldu zuen bozkatutako 15 emendakinetatik 5 onartu dituztela, eta beste 7 ere landuko direla, diru partida beharrik ikusten ez bada ere. Beraz, EAJK egindako 3 proposamen bakarrik geratu dira kanpoan, 17 mila euroko aurrekontua dutenak.

Udalaren egoera ekonomikoaz Xabi Igartuak esan zuen ez dela EAJK adierazi bezain kezagarria. "Herriarentzat estrategikoa den inbertsio bati aurre egiteko mailegua eskatu behar izan da, baina aurretik udalaren zorpetzea zerora eraman genuen". Gainera, 2020ko aurrekontuak 1,1 milioiko aurrezki arrunt positiboa aurreikusten duela gogorarazi zuen Igartuak. ■

• Oposizioaren (EAJ) ikuspuntua

Exekuzio maila baxua kritikatu eta plan ekonomikoa eskatu du EAJk

EAJren udal taldeak hasiera batean 510 mila euroko aurrekontua zuten 25 proposamen aurkeztu zituen gobernu taldearen aurrekontu proiektua hobetzeko asmoz, eta, ondoren, doitu egin zuen bere proposamena 192 mila eurotara, adostasuna lortzeko asmoz. Azkenean, jeltzaleen 15 proposamen bozkatu ziren emendakin ere, eta horietatik 5 onartu zituen gobernu taldeak, 62 mila euroko aurrekontuarekin.

ONARTUTAKO PROPOSAMENAK

Hauek dira 2020ko udal aurrekontuan txertatu diren EAJren proposamenak: Azkoagainen urgentziatzeko lanak egiteko 20 mila euro (42 mila eskatzen zuten jeltzaleek); Arantzazuko komunak berritzeko proiektua lantzeko 10 mila (50 mila eskatu du EAJk, obrak ere egiteko, baina exekuzio fasea 2021erako utziko da); Oñatiko nekazaritza eta abeltzaintza sektoreen diagnostikoa egiteko 6 mila; landa auzoetako argiteria hobetzeko plana egin eta lehen eremu bat argiztatzeko 20 mila; Ostalaritza eta Zaintza arloetan euskararen erabilera sustatzeko ekizetarako 6 mila.

Horiez gain, EAJk egindako zenbait proposamen landuko direla adierazi du gobernu taldeak, baina diru partidarik eman gabe, hala nola: Bizikidetzaren ordenantza; aldaketa klimatikoari aurre egiteko herri mailako plana; adikzioen prebentziorako plana; azterketa garaian kultur etxeko gelak asteburuetan irekitzea; herriko merkataritza sustatzeko plana (diagnostikoa egiten hasi berria da udala); turismoa sustatzeko ekintzak (diagnostikoa martxan da); herrigune historikoko lokal hutsei erabilera berriak

ematea.

Onartu gabekoen artean, berriz, hauek: musika bandarentzako urteko diru laguntza 2 mila eurotara igotzea (kultur taldeen beharren azterketa orokorra egin nahi du gobernu taldeak); kultur ekitaldien berri emateko LED pantaila bat jartzea kalean (6 mila); Gogora institutuak memoria, elkarbitza eta giza eskubideen arloetan proposatutako proiektuetan parte hartzea (9 mila).

PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK

lazio Partaidetzako Aurrekontuetan herritarrek aukeratutako proposamenei exekuzio maila baxua kritikatu du EAJk. Bizikletentzako aparkaleku estaliak edota hondakinak launaka biltzeko zakarrontziak jartzea 2019an egin beharrekoak zirela dio EAJk, eta egin gabe daudela. Beraz, 2019an bete gabe geratu diren proposamenei eta 2020rako aurreikusita daudenei lehentasuna ematea eskatu dute jeltzaleek, herritarrei emandako hitza baita.

PLAN EKONOMIKOA

2019rako aurreikusitako inbertsioen exekuzio maila %33koa dela adierazi zuen Ainhoa Galdos bozeramaleak, eta bere kezka mahaigaineratu zuen udalaren egoera ekonomikoaren inguruan; datorren urtetik aurrera (15 urtetan) udalak urtero ia 800 mila euro amortizatu beharko ditu, eta, beraz, beharrezkoa ikusten dugu plan ekonomikofinantzario bat egitea. Galdosek esan zuen EAJk proposamenak aurkezten jarraituko duela, modu eraikitzailean, aniztasunaren alde, eta adostasunera iristeko borondatearekin.



Elkarrekin hobeak gara

ELKAR HEZI proiektua ezagutu nahi?

ATE IREKIAK

URTARRILAK

23. 18:00etan

26. 11:30etan

BISITA
PERTSONALI-
ZATUAK

Eskatu hitzordua:

943 71 82 72

ldazkaritza@elkarhezi.eus

EGUNEROKO
MARTXA

URTARRILAK

27-30.

09:00-16:30

Bisita guztietan zaintza zerbitzua egongo da.





Film onenarena eta beste hamalau kategoriatako Goya sariak eskuratzeko hautagaia da Aitor Arregi eta Moriartiko lantaldearen *La Trinchera infinita* filma. Urtarrilaren 25ean izango da sari emate ekitaldia.

10 Goya sari lortu zituen **Handiak**, 13 izendapenekin. Bi gehiago ditu (15) **La trinchera infinita**k, baina, hala ere, hautagaitza gehiago dituzten beste bi film ditu aurretik: Alejandro Amenabarren **Mientras dure la guerra** (17) eta Pedro Almodovarren **Dolor y gloria** (16). Horregatik, inoiz baino zurragoa da Aitor Arregi zinegile oñatiarra pronostikoak egiterakoan. Edozein delarik ere emaitza, pozik egoteko moduan dago Moriartiko lantaldea, eta harro oñatiarrak.

Kinielarik egitera ausartzen al zara?

Zaila da. **Handia** izendapen gehien zituen filma izan zen 2018an, eta aurten bi gehiago ditugun arren, hirugarrenak gara. Bi totem (Almodovar eta Amenabar) ditugu aurretik, **Oscar** sari-dunak biak ere, eta zaila dago aurten, baina esaerak dioten moduan, ur nahasietan arrantza egiten saiatuko gara.

Uste dut hiru edo lau kategoriari, bereziki (emakume aktorea, soinu, edizioa...) aukerak baditugula. Espero dut esku hutsik ez bueltatzea.

Hainbat sari jaso dituzue han-hemenka. Sari potoloa bakarrik falta zaizue, pelikula onenarena.

Ez dugu helburu bezala jartzen, lortu ezean dezepzio moduko bat izango litzatekeelako, eta

guk ez dugu hala ikusten inola ere. Guretzat 15 izendapenak 15 sari dira, eta Goyaren bat lortzen badugu, 16.a izango da. Irudipena daukat Almodovarren gaua izan daitekeela, ematen du gau magiko bat "zor" diola Goyak. Hobe itxoin eta ikusi nola bozkatzten duten akademikoek.

Berezia izango da aurtengo ekitaldia?

Bai. Estatuan ez ezik, Frantzian eta Ameriketako Estatu Batuetan ere, bereziki Almodovar, jainko bat da zinematografikoki, eta guretzat gauza polita da halako mitoekin lehian egotea.

Zein dira *La trinchera infinita* bere alde dituen bazak?

Kontatzen duen istorioa ez da oso ezaguna, baina indartsua da. Beldurraren alegoria bat da, eta horrek jende askori ukitzen

«Handia, 13rekin, izendapen gehien zituen filma izan zen 2018an; aurten bi gehiago ditugu eta, hala ere, hirugarrenak gara, Amenabar eta Almodovarren pelikulen atzetik»

diola uste dut. Gainera, aktoreek egiten duten lana zoragarria da. Baina horrekin ez dut esan nahi besteen gainetik dagoenik. Pelikula bakoitzak ditu bere berezitasun eta indarguneak.

Aurretik, *Forqué* eta *Feroz* sariak emango dira. Zenbateraino dira garrantzitsuak? Baldintza ditzakete Goya sariak?

Gero eta sona handiagoa hartzen ari dira eta, egia da, termometro moduko bat izaten direla, batez ere *Forqué* sariak, zine arloko ekoizleek bozkatzten dutelako, eta *Goya* sarietan ere botoa dutelako (*Feroz* sariak prentsak ematen ditu). Azken batean sektoreko profesionalak emandako sariak dira, eta pelikularen palmareserako onak dira. Urtarril osoan Madrilera joan-etorrian ibiliko gara.

200.000 lagunek ikusi dute filma. Pozik?

Bai. Euskal Herrian oso ondo funtzionatzen ari da, eta Madrilera hainbat aretotan ere bai. Andaluzian ere txukun joan da baina erantzun hobexegoa



Aitor Arregi eszena bat aztertzen monitorean, Jose Mari Goenaga ko-zuzendaria eta Antonio de la Torre aktorearekin

espero genuen, bertako istorioa izanda, eta Katalunian ez daukagu zorte handirik; **Lo-reakek** eta **Handiak** ez zuten ondo funtzionatu bertan, eta honek ere ez. Ez dakigu zergatik.

Amenabarren filmak 1,8 milioi ikusle izan ditu. Zergatik hainbesteko alde?

Amenabar izar bat da eta bere pelikulak "a must see film"ak dira, amerikarrek dioten bezala. Gure helburua ez da Amenabarrekin lehiatzea ikusle kopurutan. Are gehiago, Amenabarren estreinaldiaren berri izan genuenean geurea atzeratu egin genuen, harenak itzala egingo zion arduraz.

Zer ibilbide izango du filmak hemendik aurrera?

Espero dezagun *Goya* sarien oihartzunak pelikuaren bizia luzatzea. Nazioarte mailako zinemaldietan egotea ere espero dugu. Dena den, udaberrian *Netflix*-en katalogoan sartuko da, eta horrek dakar zinemaldietan

«La trinchera infinitak oso ezaguna ez den istorioa kontatzen du, baina indartsua da. Beldurraren alegoria bat da, eta horrek jende askori ukitzen dio. Gainera, aktoreen lana izugarria da. Baina horrek ez du beste inoren gainetik jartzen»

egoteko aukerak murriztea. Alde horretatik, **Loreak** eta **Handiak** baino ibilbide laburragoa izango du festibaletan.

Hurrengo pelikula noizko?

Lasai hartu nahi dugu. Hainbat gauza ditugu esku artean, baina ezer erabaki barik, oraindik. Aurtent behintzat ez gara hasiko ezer errodatzen; prestatu bai, baina errodatu ez.

Mateoren ama izeneko laburra ere estreinatu duzu, arrakatsua hau ere.

Jose Mari Goenagarekin batera egindako lana da, Iban Zalduren errelato batean oinarrituta. Duela hiru hilabete estreinatu genuen eta 9 sari jaso ditu jada. Pozik gaude.

Laburmetraia, istorioak kontatzeko beste formatu bat bezala ikusten dugu, ez bakarrik film luzeetarako trebatzen joateko. Uste dugu istorio mota bakoitzak bere formatua eskatzen duela, izan luzemetraia, izan laburra edo dokumentala. ■



15 IZENDAPEN Goya Sarietarako

- **PELIKULA ONENA**
La trinchera infinita
- **ZUZENDARI ONENA**
Arregi, Garaño eta Goenaga
- **JATORRIZKO GIDOIA**
Goenaga eta Luiso Berdejo
- **JATORRIZKO MUSIKA**
Pascal Gaigne
- **AKTORE PROTAGONISTA**
Antonio de la Torre
- **AKTORE PROTAGONISTA**
Belen Cuesta
- **AKTORE ERREBELAZIOA**
Vicente Vergara
- **PRODUKZIO ZUZENDARITZA**
Ander Sistiaga
- **ARGAZKI ZUZENDARITZA**
Javier Agirre Erauso
- **MUNTAIA**
Lauren Dufreche eta Raúl López
- **ZUZENDARITZA ARTISTIKOA**
Pepe Domínguez
- **ARROPA DISEINUA**
Lourdes Fuentes eta Saioa Lara
- **MAKILAJEA ETA ILE-APAINKETA**
Yolanda Piña, Félix Terrero eta Nacho Díaz
- **SOINUA**
Iñako Díez, Alazne Amezttoy, Xanti Salvador eta Nacho Royo-Villanova
- **EFEKTU BEREZIAK**
Jon Serrano eta David Heras

 **ARRIZABALAGA**
Aroztegia

 **PAKITA**
Altzariak

Berezo Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserriko agia,
egurrezko labean egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

'GUTAZ'

Euskaldunon historia ezagutzeko hitzaldi zikloa

Bere historia ezagutzen ez duen herria ezin izango da bere etorkizunaren jabe izan. Horregatik, berebiziko garrantzia du gure herriaren memoria kolektiboa berreskuratzeak eta ezagutzera emateak, eta horretan dihardu Nabarralde Fundazioak. Eta testuinguru horretan kokatu behar da Nabarralde elkarteko Oñatiko sustatzaileek antolatu duten 'Gutaz. Izaera, gogoa, ekina' hitzaldi zikloa. Iñaki Idigorasek eman digu ekimenaren berri.

Hitzaldi zikloa antolatu duzu 'Gutaz' izenburupean. Nor da 'Gu' hori?

Gu gara, euskaldunok, subjektu politiko moduan.

'Izaera, gogoa eta ekina' hitzak ere irakur daitezke izenburuan. Zergatik?

Kataluniako OMNIUM-en 'LLENGUA CULTURA PAÍS'-ek arreta deitu zidan, hiru hitzok herria definitzeko daukaten indarragatik. Ideia horri jarraiki, beste hiru esanahi azpimarratu gura izan ditugu. Kultura eta hizkerak definitzen gaituen IZAERA propiodun herria gara. Zanpatu gaituzte, zatikatu... baina badugu oraindik askatasun GOGO bat, bere zentzurik zabalenean ulertuta, memoria eta motibazio gisa. Egonda ez dugu baina, askatasunik erdietsiko, eta hortik EKINA, lana badaukagula adierazteko.

'Herri menperatua gara. Zortzi mendez gaindi menperatua. Baina ez gara horren jabe' diozu hitzaldien berri emateko ateratako esku-orrian. Bere

historia ezagutzen ez duen herria al gara?

Bai. Historia ezabatu egin digute. Eta larriagoa dena, gure historia ikertzeko gogoa ere kendu digute. Gure omen diren unibertsitateetako historialariek ere apenas ikertu dute. Konplexua daukagu euskaldunok, txiki eta kultura gabe izatearen konplexua. Gogoan daukat nola, umetan, amaren osaba batek adierazi zidan ni Ikastolan aritzeak eragiten zion mina. Eusker, atzerakoia zen euskaldun harentzat, baliorik gabea. Ahaztu beharreko gaitz bat. Alzheimerra, konkistatua den herri orok sofritzen dugun gaitza delakoan nago.

Memoriarik ez duen herriak zail du etorkizuna.

Gasteizeko Martin Ttipia elkarte-koek horrela diote: 'Bere historia ezagutzen ez duen herria ezin izango da bere etorkizunaren jabe izan'. Penagarria da oso bizitzan zehar pilatutako esperientzia guztia gaitz batek ahantzi erazten dion nagusi

Historia ezabatu egin digute. Eta larriagoa dena, gure historia ikertzeko gogoa ere kendu digute



baten bizitza. Jaiki eta gosaltzeko ere ez da gai. Gaitz onik ez dago, baina Alzheimerra baino krudelagorik, gutxi: noraezean uzten du pertsona. Nortasun gabe, inoren menpeko.

Euskal Herriaren historian mugarririk edo giltzarri diren zenbait data jorratuko dira hitzaldi zikloan: 1200, 1512 eta 1620.

Hala da, bai. Jakin badakigu euskeraren lurra oraingoak baino dexente zabalagoak izan zirela. Eneko Ariztarekin ernaldutako, 824an, Europaren baitan euskaldunok nor izan ginen Nafar Erresuma. Txikitzea lehenago hasi bazen ere, konkistaren mu-

garririk esanguratsuenak dira aipatu dituzun hiru horiek: Gaztelak Nafarroa itsasoko



Nabarralde Fundazioko sustatzailea da Iñaki Idigoras

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

MODA BEREZIA

NI moda

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40

lotura gabe utzi zueneko, Espainiak Pirinio azpikoa bere egin zueneko, eta Pirinioz gaindi, Donapaleun, Frantziak bere egin zuen nafar parlamentuaren azken hatsa.

Gipuzkoako historiari ariko da Beñi Agirre bere hitzaldian, gipuzkoarrok ere nafarrak izan ginela gogoratzeko.

Liburu bat idatzi zuen bi urte badirela, gipuzkoarren historia Nafar markotik kontatzeko. Euskaldunok geure erreferentziak behar ditugu arazoak behar bezala ulertzeko. Berriki ospatu ditugu zenbait herriren urteurrenak, Gaztelako erregeek sortuak izan bailiran. Edo ospatzen dugu Irungo San Martzial. Jatorriaz jakingo bagenu, nekez ospatuko genituzke geure kontrarik. Gogoratu bai, baina ospatu...

Azken hitzaldian historiako gertakariak alde batera utzi eta gure kulturaren parte den irrintziari buruzkoa izango da. Zergatik?

'Erraiak' dokumentalaren berri izan nuen, iruditu zitzaidan gure historiarekin balukeela zerikusirik. Jakina da pertsonok, traumaren bat izaten dugunean eta behar bezala adierazteko biderik aurkitu ez, gorputzean gordetzen dugula, somatizatuta. Irrintzia barne tentsio hori askatzeko bide bezala irudikatzen dut. Askatasun ariketa bat bezala. Eta egokia iruditu zitzaidan hainbeste konkista eta gero horrelakorik egitea, gogoia ekin bihurtuz.

Hitzaldi ziklo mamitsua antolatu duzue, hizlariak ere apartak, nor gonbidatuko zenuke hitzaldietan parte hartzera?

Bere barnean har bat sentitzen duen oro. Har hori zerbait badela jakin bai, baina definitzeko gai ez den hori. Herri konkistatua garelako erakutsiko dugu. Gaitz latza daukagu, eta beronetaz ohartu behar dugu lehenik, onartu gero, eta jabetu azkenik. Ohartze prozesuan lagundu nahi dugu proposamen honekin. ■

'GUTAZ' EGITARUA

Kultur etxeko zine aretoan

URTARRILAK 14
19:00

IÑIGO LARRAMENDI

Gasteiz 1200: Martin Ttipia auzolantzerkia



Aurretik Errioxa eta beste konkistatuak izan ziren. Egungo Euskal Herriaren konkista Gasteizeko bederatzi hilabeteko setioaz hasi zen, 1200ean. Martin Ttipia elkartekoez, hiriko dantzari eta abeslariarekin elkarlanean auzolantzerkia egin zuten 2017an, leku hartako memoriak jabetzeko. Aurrez, memoriak nortasuna eraikitzeko duen funtzioaz jardungo zaigu Iñigo.

URTARRILAK 21
19:00

BEÑI AGIRRE

Gipuzkoako historia nafarra liburua



Bi urte badira iada Beñik liburua atera zuenetik, Nabarralderekin. Egungo Gipuzkoa ikuspuntutzat hartuta, kontextu zabalaz arituko zaigu Beñi. Nafarroaz, alegia. Eta ezinbestean, Gaztelaz. Perspektiba honetatik Gipuzkoaren historia beste era batera interpretatuko dugu.

OTSAILAK 4
19:00

JOSEBA ASIRON

1512ko konkista



Bi urte badira iada Beñik liburua atera zuenetik, Nabarralderekin. Egungo Gipuzkoa ikuspuntutzat hartuta, kontextu zabalaz arituko zaigu Beñi. Nafarroaz, alegia. Eta ezinbestean, Gaztelaz. Perspektiba honetatik Gipuzkoaren historia beste era batera interpretatuko dugu.

OTSAILAK 11
19:00

ASISKO URMENETA

1620 Nafarroa beheregaina komikia



Bi urte badira iada Beñik liburua atera zuenetik, Nabarralderekin. Egungo Gipuzkoa ikuspuntutzat hartuta, kontextu zabalaz arituko zaigu Beñi. Nafarroaz, alegia. Eta ezinbestean, Gaztelaz. Perspektiba honetatik Gipuzkoaren historia beste era batera interpretatuko dugu.

MARTXOAK 10
19:00

EKAIN MARTINEZ DE LIZARDUI

Erraiak dokumentala



Kobazuloetatik datorkigun oihua. Entzun, sentitu eta kantatu egiten duguna. Hitzik gabeko hizkuntza. Erraietatik ateratzen zaiguna. Arbasoen oihartzuna. Baina noiztik dugu irrintzia gure artean? Bizirik jarraitzen al du XXI. mendean? Hauek eta beste hainbat galderen erantzuna bilatzen duen ariketa da Erraiak dokumentala.


Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

Jaione San Miguel Ugarte
 **MAPFRE**
OÑATI

Urtarrilaren 10ean inaguratuko da Ludoteka berria

Lizaur kaleko 5 zenbakiko eraikinean igogailua egokitzeko lanak direla eta, Txaloka ludoteka Gaztelekuko sotoan egon da maiatzaz geroztik. Baina dagoeneko obrak amaitu direnez, ludoteka bere jatorriko lekura itzuliko da. Urtarrilaren 10ean irekiko ditu atea aurpegi berriarekin, eta herritar guztiak daude gonbidatuta ongi-etorri festan parte hartzera eta instalazio berria ezagutzera.



GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati

**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

GOGOAN HARTU

→ INAUGURAZIO EKITALDIA

Urtarrilaren 10ean, inauguratuko da ludoteka berriua. Aiert Alberdik kontzertua emango du 18:30etan, eta ondoren luntxa egongo da.

→ ATE IREKIAK

Urtarrilaren 13tik 31ra Txalokako ateak irekita egongo dira ludoteka berria ezagutu nahi duten herritar guztientzat.

→ LUDOTEKAKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera, 16:45-19:45 dago zabalik ludoteka.

→ ADINA

3-8 urte arteko haurrei zuzenduta dago ludoteka.

→ KUOTA

Urte osoko kuota 60€koa da (hilean 6€); familia bereko bigarren umearen kuota 50€ eta hirugarrenarena 40€

→ IZEN-EMATEA

Ikasturteko edozein momentutan eman daiteke izena ludotekan.

→ INFORMAZIOA

Lizaur kaleko 5 zenbakian dago ludoteka. Hurbildu eta ezagutu konpromiso barik. Bestela, deitu edo idatzi: 943250715 / 688634340 edo txaloka.ludoteka@gmail.com



Alazne Agirre eta Leire Anduaga, ludotekako hezitzaileak, eta Jone Ojea, Txatxilipurdiko koordinatzailea

'Berramesten'

ludotekako proiektu hezitzaile berria

Txaloka ludotekaren ardura duen Txatxilipurdi elkarteak hiruzpalau urte daramatza **Berramesten** izeneko proiektua lantzen, eta ludotekan egin berri diren egokitzapen lanak lagungarriak izango dira egitasmoa garatzen jarraitzeko. Hona hemen *Berramesten* egitasmoaren oinarri nagusiak.

BALOREAK

Euskaraz jolastuz, lagunartean ondo pasatzeko gunea da ludoteka. Haurraren garapenean jolasak duen garrantzia azpimarratu nahi dute ludotekako arduradunek, eta jolas librearen bitartez, haurren **autonomia** eta **hezkidetz**a edo **inklusioa** bezalako balioak landu.

Haurren **parte-hartzea** lantzea, sustatzea eta sakontzea da *Berramesten* proiektuaren beste zutabe nagusietako bat. Jolas librearen bitartez haurren autonomia eta parte-hartzea bultzatzen da; haurren interes pertsonaletatik abiatuz, elkarlanean sortutako jolasak, irteerak eta beste hainbat jarduera antolatzen dituzte bertan.

Naturarekiko harremanari ere garrantzia berezia ematen diote ludotekan. Naturak hezkuntzan duen eragin positiboa landu eta garatzen dute, herriko parke eta naturaguneetan aktibitate ugari antolatuz. Altzari eta materialei daogkenez ere, plastikoa ekidin eta material naturalezkoak (egurra...) izatea lehenesten dute.

Komunikazio ez bortitza da *Berramesten* proiektuaren beste zutabeetako bat, eta, horretarako, Marshall Rosenber psikologo Estatu Batuarraren izen bereko liburua dute oinarri.

ESPAZIOA ETA BALIABIDEAK

Lizaur kaleko 5 zenbakiko eraikinean egin diren obrak baliatuz, ludotekako espazioa ere proiektu hezitzailearen beharretara egokitzeko aukera izan dute zerbitzuko arduradunek. Hala, oztopo arkitektoniko guztiak ezabatu eta haurren beharrietara egokitutako gunea egokitu dute: **estimulatzaila, segurua, malgua, funtzionala, estetikoa eta epela...**


Materiala ere funtsezkoa da haurren ikaskuntza prozesua eta hausnarketa errazteko; beraz, ezinbestekoa da materialaren **ezaugarriak** eta **kokapena** (alturan eta eskuragarri egotea) kontuan hartzea. **Txukuntasuna** eta **ordenak** ere garrantzi handia du, eta ildo horretan ere lanketa berezia egiten da haurrekin batera.

Txaloka ludotekan material **ez egituratuaren** aldeko apustua egiten dute. Helburu konkretu edo zehatz bat ez duten materialak dira; egurrezko blokeak, harriak, harea, makilak, kartoizko kaxak, arropa edo trapu ezberdinak... Jolas **espontaneo** zein **sinbolikoa** ahalbidetzeaz gain, norberaren parte hartzea eta besteekiko elkarrekintza areagotzen dute.


Bestalde, **adimen anitzei** erantzuten dien materiala izan behar da: motorra, psiko-motorra, kognitiboa, emozionala, soziala komunikatiboa... Eta, azkenik, galbahe etikoak pasatzen dituzten materialak izan behar dute: ez sexistak, material naturalez egindakoak (plastikoa ahalik eta gutxien erabiliz), lankidetzeta eta sormena sustatuko dituenak, jolas sinbolikoak ahalbidetuko dituenak...

Oñatiko Ahuntzak

- **Los Cabras** taldearen jarduna aztertzen duen **dokumentala** grabatu dute Ander Lizarralde eta Xanti Ugartek
- **Urtarrilaren 26an** aurkeztuko dute gaztetxean, eta **27an** kultur etxean



Oñatin pisu berezia izan zuten Los Cabra taldeek 1965-68 artean



'El cabra' ezizenez ezaguna zen Xabier Zumalde Romeroren (Zornotza, 1938) gidaritzapean, diktaduraren errepresioari aurre egiteko sortutako gerrilla taldea izan zen **Los Cabras -Ahuntzak-**. ETA erakundearen baitan eratu zen 1965ean, baina talde autonomo gisa jardun zuen 1966tik 1977ra. Debagoiena, Durangaldea eta Arratia eskualdeetan burutu zituen bere ekintzak, eta Oñatin presentzia handia izan zuen (militante eta laguntzaile artean, 30 bat lagun ibiliko ziren haren inguruan). Hain zuzen, protagonista horietako batzuen testigantzetan eta orduko dokumentazioan oinarrituta osatu dute dokumentala Ander Lizarralde eta Xanti Ugartek: *Cabra* taldeen sorrera, testuinguru historikoa, frankismoaren aurkako borroka klandestino, taldearen antolamendua, prestaketa, burututako ekintzak (Aloña zinea edota Galizia tabernaren aurkako sabotaiak ekintzak...), 1968ko salbuespen egoera, atxiloketak, ihesaldiak, torturak, erbestealdiak eta beste hainbat gai jaso dituzte bertan.



Ugarte eta Lizarralde, dokumentalaren egileak

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK

Aran
Hernández

Zure ETXEA eguneratu gubeneneko inbertsio
bat erabiliz bere salmenta edota alokairua erazteko

626 114 382

aranhernandez@aranhernandez.com



» ANDER LIZARRALDE / 'Oñatiko Ahuntzak' dokumentalaren gidatzailea

"Euskal Herriaren biziraupenaren alde eta espainiar zapalkuntzaren kontra borrokatzeko sortu ziren *Cabra* taldeak"

Nondik nora sortzen da Oñatiko 'Ahuntzak' dokumentala egiteko proiektua?

Gerrako garrak liburuan 36ko gerraren eta haren ondorioak Oñatin zeintzuk izan ziren jaso zuten. Gero hasi zen borroka klandestinoak jaso gabe zegoen. Eta konturatu ginen borroka hartan parte hartu zuten batzuk jada hilda daudela eta bizirik daudenak, gehienak, 70 urtetik gora daukatela. Ondorioa atera genuen orain jaso behar direla testigantza horiek. Dena ezin jaso, eta hasiera haietan Oñatin pisu berezia izan zuten *Cabra* taldeen 1965-68 urteetako ibilerak jasotzera mugatu gara.

Zer izan ziren 'Ahuntzak'?

Ahuntzen izendapenari behar baino garrantzia gehiago eman zaio. Ezizen bat besterik ez zen. Mendian asko ibiltzen zirelako da. 1965ean Jabier Zumalde Romero "Cabra" Oñatira bidali zuen ETAK Oñati, Arrasate eta inguruetan taldeak antolatzeko.

Urbixatik hasi eta Durangaldetik pasata Zornotzara arteko mendi-basoak azpiegitura bezala hartu eta entrenamenduak antolatzen hasi zen. IV. Biltzarrean Frente Militarreko buruzagi izendatu zuen ETAK. Urtebete geroago, arrazoi taktikoak tarteko, erakundea utzi zuen, "Comandos Autonomos Cabra" sortuz. 1977ra arte iraun zuten hauek

Zer jaso duzue dokumentalean?

Ulertu nahi izan dugu zergatik sortu zen Euskal Herriaren biziraupenaren aldeko eta Espainiar zapalkuntzaren kontrako mugimendu hura. Zein den jendea halako arriskutan sartzeko motiboa, eta arrazoia.

➔ **Youtube-n (onatiako ahuntzak) ikusgai egongo da dokumentala aurkezpen egunetik aurrera**

Ukullu lehendakariak esan berri du ETA ez zela inoiz sortu behar izan. Guk, berriz, zerbaitegatik sortuko zela uste dugu eta mugimendu haietan parte hartu zutenei hitza eman nahi izan diegu. Euren antolakuntza eta jardueren berri eman nahi izan dugu. Jasan zuten errepresioa eta exilioa ere aipatzen ditugu. Oñatin, *Cabra* taldeetan, militante eta laguntzaile artean 30-40 lagun ibiliko zirela kalkulatu dugu. Haietatik erdia inguruk, "demokrazia" iritsi zenean Alderdi Jeltzalearen aukera egin zuten. Agian "egindakoa gaizki egon zela" aitortu beharko dute publikoki

Zein da dokumentalaren helburua?

Gure lanaren helburua Oñatin diktaduraren eta espainiar okupazioaren aurka altxatu ziren militanteen historia jasotzea da alde batetik, eta dokumentalaren bidez, formatu horrek dakartzan mugak gorabehera, herritarrei jakinaraztea bestetik

Dokumentalaz hitz egiten ari gara, baina, horrez gain, Ahuntzak taldearekin lotura zuzena edo zeharkakoa izan zuten beste hainbat herritar ere elkarrizketatu duzue, ezta?

Bai, saiatu gara *Cabra* taldeetako oñatiar militante eta laguntzaile guztiekin elkarrizketak egiten. Ez da posible izan. Tamalez gutxi batzuek ez dute proiektuan parte hartzerik nahi izan. Dena den, 25 bat gizon-emakume elkarrizketatu ditugu, eta gure asmoa da material hori ere jendearen eskura jartzea, baina oraindik ez dugu erabaki nola. ■

➔ **Arrano tabernan eta Txokolateixan eskuratu ahal izango da 'Oñatiko Ahuntzak' dokumentala 10 €-tan**

PROTAGONISTEN
ESANAK

||



Benito Zumalde

« Belaunaldi gazteek esan zuten, zerbait egin behar da, eta gu belaunaldi horretakoak izan ginen »



Jabier Ibañez

« ETArengandik banandu eta 'ETaren talde atuonoma' gisa jardun genuen »



Gotzon Osinaga

« Ni ez naiz kontsideratu terrorista bat, nik egin dudana da herriaren alde borrokatu »



Beatriz Gereka

« Soineko elegantia jantzi, ezpanak pintatu eta Iparraldera faten zan gure ama, euskal disko klandestinuak ekartera »

HAZ

Herritarren Arreta Zerbitzua



Administrazioarekiko tramite guztiak LEIHATILA BAKARREAN

Herritarrak bulego batetik bestera ibili barik, administrazio publikoarekiko izapide edo tramite guztiak leihatila bakarrean egiteko aukera eskaintzen duen zerbitzua da H.A.Z. (Herritarren Arreta Zerbitzua). Herritarren eta administrazioaren arteko hartu-emana arintzea da bere helburua.

Oñatiko H.A.Z. zerbitzuan, esaterako, udalarekin zerikusia duten izapide edo tramite guztiak egiteko aukera dago: errolda agiriak, lan baimen eskaerak, tasa eta isunen ordainketak, dokumentuen erregistroa...

Foru Aldundiaren eskumenekoak diren tramiteak ere (familia

ugarrien tituluak, katastroaren eguneraketak...) H.A.Z. zerbitzuan egin daitezke, eta laster (hitzarmena sinatzea falta da) Eusko Jaurlaritzara edo bere menpeko erakundeetara zuzendutako idatziak eta dokumentazioa H.A.Z. zerbitzuan erregistratu ahal izango dugu, eta bertatik bidaliko dute dagokion sailera.

Ondoko orrian duzue H.A.Z. bulegoak eskaintzen dituen zeribitzuen eta ordutegiaren inguruko informazio osoa. Martxoan urtebete egingo du Oñatiko H.A.Z. zerbitzuak, eta udalak asebetetze inkesta bat egingo du herritarren artean, zerbitzua hobetzeko asmoz.

Catalana Occidente **Mikel Egaña Urrutia**
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- ✓ Heriotza
- ✓ Autoak
- ✓ Bizitza
- ✓ Istripuak
- ✓ Ontziak
- ✓ Osasuna
- ✓ Etxebizitza
- ✓ Aurrezkia
- ✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

→ Zertarako da H.A.Z. zerbitzua?

Udalarekin zerikusia duten tramite guztiak leihatila bakarrean egiteko aukera dute herritarrek HAZ zerbitzuan.

Hona hemen ohikoenak:

- **Errolda.** Altak (jaiotza, inmigrazioa...), helbide aldaketak, datuen eguneraketa, baja eskaerak... Erroldako agiriak, elkarbizitza ziurtagiriak...
- **Erregistroa:** Udaleko departamentu ezberdinetara zuzendutako idatzi eta dokumentazioaren erregistroa.
- **Lan baimenak:** Obretarako baimen eskaerak (inprimakiak bete, tasak ordaindu...). Hondakinak Garbigunera eramateko pegatinak...
- **Erreziboak:** Zerga eta tasen ordainketa: bide okupazioa, isunak, lurperatze tasak, ibilgailuak, OHZ/IBI...
- **Helbideratzeak:** Udal zerga eta tasak helbideratzeko datuak eguneratu.
- **Arreta eta informazioa:** Indarrean dauden kanpainen inguruko informazioa jaso. Herritarrek egin beharreko izapide edo tramiteak argitu. Udal zerbitzu eta baliabideen inguruko informazioa jaso....
- **Trafikoa:** Gipuzkoako trafiko buruzagitzan (DGT) helbide aldaketak egin.
- ...

→ Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoak diren tramiteak H.A.Z. zerbitzuaren bidez tramitatu ditzakegu, eta laster (hitzarmena sinatzea falta da) Jaurlaritzara edo bere menpeko erakundeetara bidali beharreko agiri edo dokumentuak H.A.Z. zerbitzuko erregistroan aurkeztu ahal izango ditugu.

→ Whatsapp zenbakia eta E-posta

Whatsapp zenbaki bat (688 743 000) eta helbide elektroniko bat (**haz@onati.eus**) ere jartzen ditu herritarren eskura H.A.Z. zerbitzuak. Kontsultak egiteko, oharrak, iradokizunak edo argazkiak bidaltzeko erabil daitezke, baina **EZ** eskaera ofizialak egiteko.

→ H.A.Z. zerbitzuaren ordutegia

Astelehenetik ostiralera 7:30 - 15:30 arreta presentziala eskainiko da.

HONDAKIN BILKETAKO ZERBITZUA

Astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 20:30etara, hondakin bilketarekin lotutako zerbitzua eskaintzen da H.A.Z. bulegoan. Hondakinak gaika ateratzeko ontziak edota olio-poteak eskura daitezke bertan, besteak beste.

→ Bulego elektronikoa

H.A.Z. zerbitzuko sarreran dauden makinak egun osoan daude erabilgarri, ordutegi honetan:

- Astelehenetik ostiralera: 7:30-20:30
- Larunbata eta igandeak: 10:00-20:30



Makina hauetan hainbat tramite egin daitezke, hala nola:

- Errolda agiriak
- Erreziboen bikoizketak
- Dokumentuen (eskaerak, agiriak...) erregistroa
- Zerga, tasa eta isunen ordainketa (Ordainketak egiteko makina txikia erabiltzea gomendatzen da, errazagoa baita).



OHARRA: eragiketa hauek egin ahal izateko (ordainketak eta errolda agiriak izan ezik) beharrezkoa da **B@kQ** identifikatzaile digitala. Ordainketak txartelarekin edo diruz egin daitezke

B@kQ

identifikatzaile elektronikoa



Euskal Herriko edozein erakunde publikotan tramiteak edo kontsultak telematikoki egiteko aukera ematen duen identifikatzaile digitala da **B@kQ**. Sei posizioko koordenada joko batean (itsasontzi joko bat) oinarritutako kodea da, ondoko irudikoa bezalakoa

ABDE FGHI JKLM NOPR
1633 7718 3933 3178

Udaletxeko H.A.Z. zerbitzuan edo Osasun Zentroan eska daitezke **B@kQ** identifikatzailea. Bulegora bertara joan behar du eskatzaileak eta hauek aurkeztu behar ditu: **nortasun agiri orijinala, telefono zenbaki bat eta e-posta** helbide bat.

DOAKO TELEFONOAK

010 Udaletxea

092 Udaltzaingoa

Oñatitik bertatik egiten diren telefono deietan **010** (udaletxea) eta **092** (udaltzaingoa) zenbakiak erabiltzeko aukera dago. Dei hauek dohainik dira. Hiriburuetan eta zenbait herritan erabiltzen diren zenbaki berberak dira, motzak eta erraz gogoratzeko modukoak. Oñatitik kanpotik deituz gero, **943780411** (udaletxea) eta **943081000** (udaltzaingoa) zenbakietara deitu behar da.

Erabilgarri dago jada 'MUGIMENT' kirol txartela

Zubikoa kiroldegiko obrak direla eta, aurten bi abonua mota ditugu aukeran ofatiarrok: **Oñatiko Kirol Txartela (OKT)** eta **Debagoieneko Mugiment Kirol Txartela (DMKT)**. **OKT** txartelak Zubikoa kiroldegiko instalazioak (kantxak, ekintza gidatuak...) eta Eltziaok (gimnasioa eta ekintza gidatuak) erabiltzeko aukera ematen du; **DMKT** txartelak berriz, Zubikoa eta Eltziaok instalazioez gain, eskualdeko beste kiroldegietako instalazio eta zerbitzuak (ikus beheko taula) erabiltzeko aukera ematen du. 2019an Zubikoa kiroldegiko bazkide izan direnei automatikoki **OKT** txartela



luzatuko zaie, kontrakorik adierazi ezean. **DMKT** abonatu txartela nahi dutenek Zubikoa kiroldegian eskatu behar dute (2019ko bazkide kuota berbera kobratuko zaie). **Mugiment** txartela **txartel birtuala** da, eta berau erabili ahal izateko Mugiment Kirol Txartela App-a deskargatu behar da (Google Play eta App Store-n deskarga daiteke).

Beheko taulan ikus daiteke Mugiment txartelera atxikitu diren Debagoieneko herriek eskaintzen dituzten zerbitzuak eta ordutegiak. (Oharra: herri bakoitzak egiten duen eskaintza aldatuz joan daiteke, erabilera fluxuen arabera).

MUGIMENT TXARTELA

HERRIAK	EGUNAK	ORDUTEGIAK	ZERBITZUAK
Aretxabaleta	Astelehenetik ostiralera	11:00-16:00	IBARRA kiroldegia: igerilekuak - gimnasioa - rokodromoa - spa gunea - kantxa - ekintza gidatuen gelak
Arrasate EREMU HEZEA	Asteazkenetik ostirala	7:00-16:00	MUSAKOLA kiroldegia: igerilekuak - saunak OHARRA: Oñatiko abonatuak Musakola kiroldegiko zerbitzuak egutegi eta ordutegi osoan erabili ahal izango dituzte
	Larunbatak	16:30-20:00	
	Igandeak	Egun osoa	
Arrasate EREMU LEHORRA	Asteazkenetik ostirala	7:00-17:30	MUSAKOLA kiroldegia: gimnasioa
	Asteburuak	16:30-20:00	
Bergara	Egunero	Irekiera ordutegi osoa	IBARRA kiroldegia: igerilekuak - gimnasioa - kirol ekintzak LABEGARAIETA kiroldegia: rokodromoa
Eskoriatza	Astelehenetik ostiralera	7:45-17:00	MANUEL MUÑOZ kiroldegia: igerilekuak - gimnasioa
Oñati	Egunero	Irekiera ordutegi osoan	ZUBIKOA kiroldegia: kirol kantxak - kirol ekintzak. ELTZIA kirol gunea: gimnasioa - kirol ekintzak

Eltziako gimnasioa urtarrilaren 13an irekiko da

Datorren astean eramango dituzte Zubikoa kiroldegiko gimnasioa makinak (zintak, bizikletak, eliptikak, indar makinak...) Eltzia, eta ustekaberik ez bada, hilaren 13an zabalduko ditu ateak Eltziaok 3. solairuan egokitu duten gimnasioak eta baita ekintza gidatuetarako erabiliko den fitness gelak ere. Gogoratu, aldagelak ere egongo direla bertan, baina dutxarrik ez.

ATE IREKIAK

Urtarrilaren 13tik 18ra ateak zabalik egongo dira Eltziaok kirol gunean, bertatik bertara ikusi ahal izateko bertan egokitu diren gimnasioa eta beste instalazioak.

Abonuen tramitazioa

Gogoratu, 2019an kiroldegiko bazkide izan direnei OKT abonuari dagokion kuota kobratuko zaiela urtarrilaren bukaeran, kontrakorik adierazi ezean. Beraz, baja eman nahi izanez gero, edota DMKT (Mugiment) abonua nahi izanez gero, kiroldegian jakinarazi behar da lehenbailehen.



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es



Txantxiku Ikastola

Etorkizunerantz hezkuntza eraldatzen



Urtarrilak 13:

Hitzaldi-tailerra:

**0-3 urte bitarteko haurren
familientzat lehen sorospenak.**



Urtarrilak 21:

Bilera informatiboa.



Urtarrilak 24:

- Ate irekiak.
- Elkarrizketa pertsonalak.
- Bisita gidatuak.


Matrikula epea:

- HH 0-1 urte:
urte osoan zabalik.
- HH 2tik aurrera
(HH-LH-DBH):
urtarrilaren 27tik
otsailaren 7ra.

Bulego ordutegia: 08:00-18:00

Informazioa:

www.txantxikuikastola.eus
Tel.: 943781204



ERKIDE



Berritasunekin dator 'ELKARREKIN EKIN'

► **Ekintzailetasuna** sustatzeko programa antolatu dute Mondragon Team Academy-k eta Udalak ► **Maker** guneko teknologia baliatuz, **prototipazio** tailerrak egingo dira ekintzaileekin eta ikastetxeekin

Orain dela bi urte hasitako bideari jarraituz, **III. Elkarrekin ekin** programa antolatu dute Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultateko *Mondragon Team Academy*-k (MTA) eta Oñatiko udalak. **Ekintzailetasuna** sustatzea da helburua; ekintzaileen arteko komunitatea sortzea, elkarren artean ikasteko, elkarri laguntzeko, eta negozio ideiak garatzeko.

MAKER-TECH DENON ESKURA

Orain arte bezala, hiru atal izango ditu Elkarrekin Ekin programak, baina horietako bat berria da. **'Maker-Tech Mundura Begira'** du izena atal honek, eta helburua da **teknologia** kontzeptua aplikatzea ekintzailetasunaren arloan eta baita hezkuntzan ere.

Horretarako, Enpresagintza fakultatean MTA laborategiak sortu duen **Maker** espazioa eta bertako baliabideak (**3D inprimagailuak, laser ebakitzaleak...**) erabiliko dituzte.

Illo horretan, **prototipazio** tailerrak antolatuko dira negozio ideiak garatzeko prozesuan, eta, gainera, elkarlan programa bat garatuko da herriko ikastetxeekin, ikasleek eskolan jasotako ezagutza teknikoak praktikan aplikatzeko aukera izan dezaten **Maker** guneko baliabideak erabiliz.

Gogoratu behar da, gainera, Enpresagintza fakultateko **Maker** guneko teknologia herritar guztien eskura dagoela; hau da, prototipo bat sortu edo testatu nahi duen edozein pertsona erabili ahal izano ditu bertako baliabideak, MTA laborategiko arduradunekin harremanetan jarrita.

KOMUNITATE EKITALDIAK ETA NEGOZIO IDEIEN GARAPENA

Beste bi atal ere izango ditu Elkarrekin Ekin programak. Alde batetik, **Komunitate ekitaldiak** antolatuko dira bi hilean behin, ekintzaileak elkartu eta ezagutza sakontzeko hainbat arlotan. Bi orduko (14:00-16:00) saioak izango dira. Gai ezberdinetan adituak diren pertsonak euren ezagutza partekatuko dute eta, gainera, dinamikak egingo dira, parte hartzen duten ekintzaileen artean konexioak lortzeko. **Urtarrilaren 27an** izango da aurreneko komunitate ekitaldia; negozio ideia bati nola forma eman aztertuko da.

Elkarrekin Ekin programaren hirugarren atala **Ideien Garapen Prozesua** da. Bi hilabeteko (otsaila-apirila) programa da, eta *Design Thinking* metodologiaren bidez, negozio ideiak sortu, aztertu eta garatzea da helburua. Hiru profil ezberdinetako pertsonen zuzenduta dago: negozio edo enpresa txikia duten ekintzaileak; ideiak dituzten ekintzaile potentzialak; inizatiba eta aukera berriak bilatzen ari diren gazteak.

Prozesu honetan parte hartzen duten ekintzaileek aukera izango dute beraien ideien azelerazio prozesuan (**Start Up Process**) parte hartzeko irailetik abendura. ■



Enpresagintza fakultateko **Maker** guneko teknologia (laser ebakitzalea, 3D inprimagailuak...) erabiliko dituzte prototipoak sortu eta testatzeko



Urtarrilaren 27an egingo da aurtengo **lehen Komunitate ekitaldia** Enpresagintza fakultatean (14:00-16:00). **Negozio ideia bati nola forma eman, landuko da bertan. Interesa duten herritar guztiak daude gonbidatuta**

MAHAI-INGURUA

OÑATIKO AZKEN BOST ALKATEEKIN

Herriko etorkizuna eraikiz



Interes handiarekin piztu zuen alkateen arteko mahai-inguruak. © Nagore Goñi

Mamitsua gertatu zen Kontzejupetik aldizkariaren 300. zenbakiaren harira abenduaren 17an egindako mahai-ingurua, azken bost alkateekin: Angel Iturbe (1991-2003), Andoni Gartzia (2003-2006), Lourdes Idoiaga (2006-2011), Mikel Biain (2011-2019) eta Izaro Elorza (2019-).

Alkatetzan bizi izandako esperientziak eta egindako lana gogora ekarri zuten aurrena eta, ondoren, etorkizunera begira Oñatik dituen erronka nagusiak aztertu zituzten.

Herritarrak eta ingurumena zainduko dituen herria; euskalduna, feminista eta kulturari inbertitzen duena. Halaxe laburbil daiteke bost alkateek irudikatzen duten etorkizuneko Oñati. Erronka nagusien artean, arazo soziodemografikoa, herriko negozio eta komertzioetan dagoen errelebo falta, lehen sektorea babestearen garrantzia, eta herritarrak udalgintzan inplikatu beharra aipatu zituzten, besteak beste. Aier Alberdi musikariak eta Urko Egaña bertsolariak osatu zuten saioa.



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com





Protagonista egun batez

📷 Nagore Goñi

Oñatiko azken bost alkateekin egindako mahai-inguruak interes handia piztu zuen. 100 bat lagun elkartu ziren Kultur Etxeko zine aretoan eta ordu eta erdi pasa iraun zuen solasaldiak askorako eman zuen.

Aretoan bertan egon zirenez gain, beste hainbat pertsonak *streaming* bidez jarraitu ahal izan zuten ekitaldia.

Hala ere, bertaratu ziren lagunei euren presentzia eta interesa eskertu nahian, egun batez aldizkariko azalean agertzeko aukera eskaini nahi



eskaneatu eta entzun mahai-inguru osoa hemen

izan genien. Kontzejupetik, herriaren aldizkaria baita. Eta egun horretan, zuek guztiok izan zineten protagonista.

Oñati Irratiko lankideei esker gainera, mahai-ingurua grabatuta gelditu zen. Alboan daukazuen QR kodea eskaneatuz entzun dezakezue.



Angel Iturbe Yarza
Alkate 1991-2003

Bere aurretik alkate izan zen Eli Galdos gogora ekarri nahi izan zuten Iturbek hitzaldiaren hasieran, Oñatik urte askotan pilotutako gabezia handiari irtenbidea emateko oinarriak ipini zituelako. Bere hiru agintaldietan abian ipinitako proiektuak zerrendatu zituen ondoren (kultur etxe berria, Oñatiko Etxegintza, Eguneko Zentroa, saneamendu sarera, industrialdea...). Etorkizunera begira jarrita, Plan Estrategiko baten beharra azpimarratu zuten, bere garaian egin zen bezala, arlo ezberdinetako herritar eragileen parte hartzearekin.



Andoni Gartzia Urtaza
Alkate 2003-2006

Herria maite duelako onartu zuten Gartziak alkate izateko eskaintza. Eli Galdosek irakatsi zion herria maitatzen, eta Angel Iturbek konstantea eta iraunkorra izaten. Hogei urte barru, 50 urtetik gorakoak 15etik beherakoak baino gehiago izango gara Oñatin, eta horrekin lotuta bi erronka aipatu zituen: osasun publikoa eta pentsioak. Oñatiarrek segurtasuna, ekonomia sendoa eta osasuna eskatzen dute, eta horren harira, lau gomendio eman zituen etorkizunera begira: egiten, izaten, agintzen eta kudeatzen jakitea.



Lourdes Idoiaga Urkia
Alkate 2006-2011

Kooperatiba mundutik herriaren zerbitzura dagoen beste erakunde batera emandako urrats bat bezala bizi izan zuten alkatetza Idoiagak, eta garbi utzi zuten lorpenak ez direla alkatearenak bakarrik izaten, lantalde osoarenak baizik, eta baita oposizioko alderdienak ere. 2007ko krisi ekonomiko gogorari aurre egin behar izan ziotela gogoratu zuten. Etorkizuneko erronken artean, ingurumena, lehen sektorea eta tokiko merkataritza babestea, eta adin guztietako herritarrentzako herri atsegina egitea aipatu zituen.



Mikel Biain Berraondo
Alkate 2011-2019

Momentu historiko bezala bizi izan zuten Biainek alkatetzara iritsi zen unea, ilegalizazio urte batzuetatik zetorrelako koalizio abertzalea. Etorkizunera begira jarrita, berriz, esaldi batean laburtu zuten berak irudikatzen duen herria: euskalduna, parekidea eta hezitzailea, herritarak eta ingurumena errespetatuko dituen. Erronken artean, arazo soziodemografikoa, tokiko merkataritza eustea, zahartzaro aktiboa sustatzea (helduentzako unibertsitatea) eta kultur eskaintzari eustea (inbertsio gisa) aipatu zituen.



Izaro Elorza Arregi
Alkate 2019-...

Mikel Biainen agintaldian udalak herritarrenganako erakutsitako gertutasunak animatu zuten Elorza udaletxean sartzera. Urte erdi baino ez darama alkatetzan, baina oso esperientzia aberasgarria izaten ari dela esan zuten. Erronken artean, gardentasunean oinarritutako gobernantza eredu eta herritarrek udalgintzan parte hartzearen garrantzia azpimarratu zuten. Etorkizuneko Oñati herri feminista eta ingurumenarekiko jasangarria izatea nahi luke.

HERRITARREN KEZKAK

» Kultur etxeko zine aretoan bildutako herritarrek ere izan zuten beraien kezkek mahai gainean jartzeko aukera. Tokiko merkataritzaren aldeko apustu sendoa eskatu zuten batek; nerabeen adikzio eta kontsumo goiztiarren inguruko kezka ere azaldu zen, eta gazteentzako kultur eta aisialdiko eskaintza osatzea ere eskatu zuten. Herriko paisaia nagusi den pinuaren harira, bestelako basogintza politika eskatu zuten beste herritar batek, eta lurraldetasunaren ikuspuntutik, Euskal Herriko estatugintzaren inguruko jarrerak faltan bota zuenik ere izan zen.

COINBROKER
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

☎ 943 089 006 ✉ oinati@coinbroker.eus
🌐 www.coinbroker.eus

Mireia
MIREIA MUGARZA
FISIOTERAPIA - HAUR OSTEOPATIA
Elkaridee z.b. 2670

LOPE AGIRRE 8, behea | T. 652 55 67 11 | mireiamugarza.fisio@gmail.com



ATEAK ZAPALIK

*Eskola bizia
eta aktiboa*



*Publikoa eta
kalitatezkoa*

URTARRILAK 25

- **Txiki Txokon:** 11:00etatik 13:00etara

- **Errekalden:**

BISITA GIDATUAK

1.Txanda 17:00etan 2.Txanda 18:00etan

FAMILIENTZAKO EKINTZAK

URTARRILAK 28

- **Zuazolan:** 18:00etatik aurrera

Etorri gure egunerokotasuna ezagutzera. Merezi du!!





Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72



Oñatiko monumentuak ondaketan?

Kepa Elortza

Batzuk dixue urarena dala, beste batzuk, barriz, olixua dala (hidrokarburuak), eta beste bateri be entzun xaot hariarrixaren gaixotasun bat dala. Norbaittek argiketarik ze arraixo pasaitten xaten gure monumentu ederrairi?



DEIALDIAK

Aloña Mendi Kirol Elkarteko bazkideentzat deialdia:

Urtarrilaren 22an, asteazkena, 19:00etan lehenengo deialdian, eta 19:30etan bigarrenan, Kultur Etxeko zine aretoan, Ezohiko Batzar Orokorra egingo dugu. Batzar honetan tratatuko diren gaien artean, zuzendaritza orokorra berritzeko **hauteskunde prozesua** martxan jarriko dela azpimarratu nahi dugu, azken urte hauetan kargu hauek, hau da, lehendakaria, lehendakari ordea/diruzaina eta idazkaria, bete duten pertsonak utzi egingo dutelako. Batzarreko gai-zerrenda eta dagokion dokumentazio guztia www.aloniamendi.eus elkartearen web orrian jarriko dira.

Inauteriak prestatzeko entseguak



Otsailaren 22an ospatuko den Oñatiko Inauteri festa prestatzeko entseguak urtarrilaren 7an hasiko dira. Martitzenetan (20:00) eta larunbatetan (12:00) izango dira, Eltzian. 16 urtetik gorako herritar guztiek parte har dezakete. Animo!



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



Islada

Askok oraindik ezagutzen ez badute ere, urriaren bukaeran anfibioentzako putzua egokitu zen Belatxara inguruan, Natur Eskolakoek ekimenez, auzolanean. Udazkenean egin dituen euriteei esker, putzua urez beteta dago jada, argazkian ikusten den moduan. Ez dakigu oraindik anfibiorik ba ote dabilen inguruan, baina Egañak aukera baliatu zuen argazki polit hau ateratzeko ziklo krosean.



ASIER EGAÑA

OHAR ETA DEIALDIK

► EMAKUMEENTZAKO* TAILER PRAKTIKO ESPERIMENTALA

'Barneko haurra besarkatzen' izenburupean, emakumeei zuzendutako tailer esperimentalak egingo da urtarrilaren 25 eta 26an Oñatiko Yoga zentroan, Darya Elena Urigoitia terapeutaren eskutik. Plazak mugatuak dira. Izena emateko: 688 618 883 (Leire). Informazio gehiago: www.muieresconectandoconsuesencia.com



► BARRUA LANTZEKO TAILERRA

Barrua lantzeko autoezagutza tailerra. Iraupena: 10 hilabete (hilean larunbat bat, 9:00-14:00) urtarrilaren 25ean hasita. Oñatiko Yoga Eskolan (Bidebarrieta 28). Eneagrama (pertsonalitatea osatzen duten 9 pasioen mapa) erabiliko dute lan erreminta bezala. Informazioa: 658 719 086 / lourdescid1@hotmail.com



► HITZALDIA: 'El hombre, el mundo y lo divino'

Oñatiko Sanatana Dharma Yoga Eskolak 30 urte betetzen ditu aurten, eta urtean zehar hainbat ekitaldi berezi antolatzeko asmoa dute. Hala, urtarrilaren 31n Alfredo Iglesias 'Druva'ren hitzaldia egongo da, kultur etxeko zine aretoan, 19:00etan. Sarrera dohainik. Herritar guztiak daude gonbidatuta.



AUZOLANA GAZTETXEAN

Abenduko eta, bereziki, gabonzar gaueko jaialdiaren ostean, zikinak garbitzeko auzolana egingo da Antixena Gaztetxean, urtarrilaren 6an eta 7an. Denen beharra dago, denok baikara gatzetxea. Animo!

SARITUTAKO ZENBAKIAK

Aloña Mendiko futbol sailaren Gabonetako zozketan sarituak atera diren zenbakiak hauek dira:

- 0959 (ordezkoa 4649)
- 3814 (ordezkoa 9817)
- 7924 (ordezkoa 3586)

Bestalde, HOTZ-OÑATIK egindako zozketa berezian saritutako zenbakiak hauek dira:

- 2861 (ordezkoa 2616)
- 1366 (ordezkoa 1448)
- 0385 (ordezkoa 0355)

Etixerat-en Gabon zozketa:

- 3354 (ordezkoa 4313)

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



Gure ekintzen berri emango duen atala...

HEMEN OÑATIN...

Lagun talde batekin solasean (14 eta 15 urte):

Gurasoekin etxean

- Amaren "bronkak" sarriagoak dira baina aitarenak gogorragoak- direla dio batek.

- Ama "bronka" botatzen hasten da eta gero aitak jarraitzen dio. Jarraian, ama aitarekin haserraten da, aitak niri esan-dakoagatik eta azkenean biak haserre bukatzen dute- dio beste batek...

Haserretzeko ohiko arrazoiak, gehiegizko mugikorraren erabilera, telebista, gelaren egoera, komuneko papera ez aldatzea, erabakiak gaizki hartzea, argiak ez itzaltzea... direla diote gazteek.

Etxeke kontuez ari garela, taldekide batek duela gutxi, gurasoak sexu harremanak izaten entzun dituela kontatu digu:

- "Traumatikoa" izan da!!!...

Beste inork ez du hau bizi izan eta elkarrekin umorez aritu gara honen inguruan solasean.

"Memela", "Kaka-ume", "Mozola",..... bezalakoak entzuten dituzte gurasoen aldetik batzuek haserre daudenean.

Ondoren, Gaztelekuko hezitzaileok, talde honetaz hitz egin jardun dugu. Elkarren artean bataren eta bestearen iritziak errespetatzeko izan duten jarrera ona aipatu dugu. Umorez hartu behar direnak, umorez hartu dituzte eta taldekide guztien ikuspuntuek lekua izan dute. Nik, egunerokoan beraiekin egoten den hezitzaileari nire inpresioa azaldu diot eta berak ere, iritzi berdina duela esan dit: lagunarte osasuntsua da hau.

"Ona" zer den jakiteko, "txarra" ere ezagutu beharra dago. Eta eredu "on" honetatik beste kuadrilla-harreman eredu batzuek hitz egitera egin dugu salto. Harreman "toxikoak" dituztenak. Beldurrezko, segurtasun faltadun eta menpekotasun "lagun" harremanak. Sufrimendu asko eragiten duten erlazioak, non, uneoro norbait irabazten eta norbait galtzen dagoenaren sentsazioa izaten dugunak. Boterea gaizki arrazoituta eta desorekan banatuta duten lagun taldeak. Kuadrillatik taldekideak bota edo baztertzen diren egoerak ematen dira bertan.

Gure lana beraiekin erreferentziatzeko hezitzailea izatea da. Beraien arteko harremanak aztertu, ulertu, kontzientzia hartzen lagundu eta harremanak izateko beste bide edo modu batzuk bereganatzeko hezitzailea izatea. Etorkizunean oreka ge-hiagoko eta osasuntsuagoak diren harremanak loratzeko, sustraiak ongi errotzeko ahaleginetan egongo den bidelaguna izatea alegia.

2020. urtean Oñatz dantza taldeak 50 URTE



Urte zahar egunean amaitu zitzaigun joan den urtea, eta urte berri egunarekin batera iritsi zaigu datorrena. Ez da izan men-dea eta segundoa gurutzatzen diren momentua; bai, ordea, dantza taldeak 50 urte beteko dituen urtearen hasiera.

Esan moduan, mende erdi egingo du 2020. urte borobilean Oñatz dantza taldeak. 1970.ean sortu zen orduko Oñatz kultur elkartearen baitan. Eta proiektu eder horrek, gainera, balio izan dio izenari berari ere urteak joan eta urteak etorri, izan Oñatin, izan Euskal Herrian, izan gure diasporan, lehendik are ezagunago egiteko.

Eta izen horren estalpean, zenbat oroitzapen etorriko ote zaizkio oñatiar bakoitzari esaldiok irakurtzean: izango dira onak, zorionsuak, txarrak, go-gorak, minberak, garratzak, gozoak... Sentipenekin batera izango ditugu dantzari, musikari, guraso, laguntzaile eta abarrek ezin zenbatu bizipen, eta hori da gure harrotasunaren zutabetako bat: eguneroko urratsekin sortutako dantza.

HILERO EKITALDI BAT

Zutabeok, baina, oinarri zabal baten eraiki ditu aipatu dantzari taldeak, eta horren erakusle izango da urtarrila. Izan ere, 2020. urteko hilabete bakoitzerako gai bat landu dugu: **urtarrila**, zer da Oñatz?; **otsaila**, Oñatiko inauteriak; **martxoa**, Oñatzen harrobia; **apirila**, jantziak; **maiatza**, erraldoi eta txorimaloak; **ekaina**, Korpusak; **uztaila**, Oñatzen eguna; **abuztua**, Euskal

Herriko taldeen emanaldia; **iraila**, Oñatiko Haurren Eguna; **urria**, 50 urte dantzan; **azaroa**, musikariak; eta, azkenik, **abendua**, Oñatzen emanaldia. Eta egitarau horrek merezi duen aurkezpena egingo dugu hilaren 18an, larunbatean, Udaletxeko pleno aretoan, eguerdiko 12:00etan.

SOKA DANTZA ETA TERTULIA

Aurkezpenaren ondoren, gainera, hain gurea –bai oñatiarrona eta, baita ere, euskaldun guztiona– den soka dantzan aterako gara plazara. Taldeak bete duen urte bakoitza dantzari batek

ordezkatuko du, aurrekuak eta atzeskuak soka gidatzen duten bitartean.

Baina ez da hori izango urteko lehen hilak izango duen ekintza bakarra; izan ere, 22. egunez, asteazkenez, elkar-rizketa bat antolatu dugu, Gaztelekuan. 19:00etan hasiko da aipatu tertulia, eta bertan jor-ratuko ditugu, elkarren artean, guretzat guztiontzat horren ga-

rrantzitsuak diren dantza taldearen transmisioa eta elkarlana.


Hortaz, –eta esan barik doa– agurtzen zaituztegu urteko ekintza guztietara gonbidatuz. Eta urte berriari emandako ondo etorriaz gain, eman diezaiogun, baita ere, gure herriko euskal dantza tradizionaleko taldeari merezi duen agurra.

Urte berri on guztioi eta **GORA OÑATZ!**

Iñigo Murgiondo Agirre
Oñatz-50 Komunikazio taldea



Herritar guztiak animatu nahi ditugu urteko ekitaldietan parte hartzera.

**IKATZ KARRIUAN:**

Sindika gaiñeko kargalekuan etarata dago 1945-1947 inguruan. Bittorixako Gerardo Lopez de Gereñu fotografo, etnografo eta historiagillia egiña da.

Basogintzaia (5)

Ikazkintzaia

ERREPORTAJIA / ROBERTO ALTUNA ERLE

Jerardo Elortzak *Antxiñako fotografia* sailleko artikulu baten —*Kontzejupetik*, 155. zkixa— aittaketan dauen moduan, beste herri batzuetan letxe, **ikazkintzaiak** zuztar sakonak euki zittuan gure artian denpora askuan. Hemen, gaiñera, beste leku batzuetan baiño gehituago. Horren arrazoia bistan dago: ingurura begiratu besterik eztago, Oñatiko lurretan zenbat baso daguen konturaketako: pagaduixak, hariztuixak eta piñuduixak gehixentxuen, baiña badira artia, lizarra, korostixa, urkixa eta bestelako arbola-klasiak be.

Egur-ikatza egitteko, haritza, pagua, artia eta gaztaiña izaten ziran egogixenak. Oñati aldian lehenengo bixak dagoz gehixen, pagua batez be, artia askoz gutxiago, eta gaztaiña, gaitzak jota, zihero urrittu zan 1920ttik aurrera. Ikazkiñen bezerorik onenak, barriz, burdiñagintzaian ziharduten lantegixak ziran: **olak**, **errementarixak** eta **sutegixak**. Gure herrixan Olakua, Olalde eta Zubillagako ola klasikuak ez ezik, fanderixia be egon zan Osinurdiñen

eta dozenaka errementari, zartagiñagille eta ultzezin kaliañ nahiz auzuetan.

Hau dala eta, ikatz-premiña dezentia egongo zan Oñatin. Andarto, Artixa, Arantzazu, Aloña azpi, Olabarrieta eta Aurrekomendixan Zubillagaraiño **txondor ugari** ixuketan ziran ixa urtero. Lanbide horretan jardundako oñatiar batzuk bizi dira oraindiok. Goguan dogu, bestiak beste, **Kilometroak 1989**ko ibillaldixa ederketako, Asentzio ermitta onduan txondorak eta ikazkin-txabolía edo kamañña zihatz eta dotore asko moldau zittuan ikazkin izandakuen taldia.

Baiña oñatiarren artian ofizio hau gutxiketam hasi zanian, Naparruatik etorri xakun ikazkin pillia. Noiz izan zan hori? Ba, gerraosteko lehenengo hamarkadan. Orduan eskasidadia zan bazter guztietan eta ikatza edo beste erregeiren bat zuzenketako bihaleku galantak eukitten zittuain enpresak.



Juane, Joxe eta Gregorio ikazkiñak

Horregatik, egur-ikatzak estimaziño haundixa eukan burdiñiaren fundiziñora dedikaitten ziran fabriken artian. Oñatin bertan, arboledako **Mugarza, Ugarte y Cia** izeneko fundiziñua balixau zan herrixan egindako egur-ikatxaz. **Garay** eta **Zubillagako Forjak** be bai.

Hala ta be, orduan hemen egosittako ikatzik gehixenak Zumarraga aldera eruan zittuain. Izan be, urte hareittan inddartuaz oian **Esteban Orbegozo** enpresiak izugarriko mobimendua jarri eben Arantzazu aldian. Orbegozok Arantzazutik Urbixara bittarteko baso asko eukan erositta, eta, dakizuenaz, pagaduixa da inguru horretan nagusi. Horko aberastasuna aprobetxaitteko, ofizio latz horretan ondo zailddutako gizakuma-taldiak ekarri zittuan Naparruatik, **Ameskua** aldetik gehixenbat, hau da, Urbasa eta Lizarra arteko parajietatik.



Udabarrizan etorten ziran naparrok ikatza egittera, urdaixa eta babia aldian ekarreilla. Momentu batzuetan berrehun ikazkiñetik gora jardun ei euen zeregin horretan. Uda partian, garagarilletik agorrera, millaka ikatz-zakuren kario-aldixa izaten zan. Txondor-lekuetatik **Arantzazuko kargalekuetara manduetan** edo astuetan jaisten zittuain. Iñoiz hirurogei mando inguru ibilli ei ziran batera, gora eta behera, bakoitzak 30-40



Erremintak


kiloko lau zaku ekarriaz. Astuak gutxitxuago.

IKAZKIÑEN LANA

Lan luzia, zikiña eta nekosua zan ikazkiñena. Batzuetan hamabost egun edo gehixago bihar izaten zittuain egurra ikatz bihurketako. Horretarako **artia**, **pagua** eta **haritza** ebalten euen aixkomete. Zuraz gain **idurixa** (lur erria), **orbela** (ostro igarrak), **zohi** edo **zotalak** (lur zatixak) eta antzekuak biharrezkuak zittuain txondorri estaleria emuteko.



Goixan txondorra sutan, behian kamañia



BERTSOAK

Hona hemen Jerardo Elortzak **Kilometroak 1989**ko ospakizunaren barruan, txondorrek egiten ibilli ziran ikazkiñai eskiñi osten hiru bertso:

*Txondorgintzan be ederki asko
gizon batzuk jardun daue,
Asentzioko ermita ostian
euren lanak egin ttue.
Andres eta Bernabe,
Gregorio ta Juane
Joxe ta Klaudiorekin
ikatz-lanetan konpondu dira
oso ondo elkarrekin.*

*Egun gutxittan modutu ebein
ikazkiñok lan haundixa;
ez zan samurra billaketa
txondorgintzarako gaixa:
orbela eta zohixa,
gaiñera idurixa
Oñatin bertan batu zan;
egurra igarra bihar zan eta,
billatu zan Ameskuetan.*

*Hiru txondor eta txabola bat
jaso ebein berihala;
aguro asko modutu arren,
ez zan izan lan makala.
Majo ebali zala
atxurra eta pala
inguratu zanak daki;
ikazkin zaharren bizimodua
ikusit geben ederki.*



*Kilometroak 1989*ko jaiko txondorgillak Arrikruzgo Juane Barrena, Antzuelasko Gregorio Zugasti, Imittolako Joxe Arregi eta Soraundietako Andres Urzelai. Taldian ez egon arren, Estenagako Berbabe Guridi eta Arantzazuko errotako Klaudio Ugarte be ibilli ziran.

ETXiAN
Inmobiliaria

Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60
etxian@etxian.net

www.etxian.net

Instagram Facebook

carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

Erakusleiho ederrena KIMUrena

Abenduaren 21ean egin zen Oñatiko XII. Erakusleiho Lehiaketako sari banaketa eta **KIMU** lora dendarentzat izan zen epaimahaiaren sari nagusia (500€). Bigarren saria (300€) **Amalur** belar dendak jaso zuen eta hirugarrena (200€) **Andrea Azkoaga** barne dekorazio dendak. Bozka eman duten 1.108 herritarren ustez ere hiru eskaparate horiek izan dira politenak, baina **KIMU** lora denak eraman du saria (500€) bozen %28rekin.



Bi sari potoloak jaso ditu KIMUK: epaimahaiarena eta herritarrena

erakusketa

'Mujeres de negro'

Kultur etxean, urtarrilak 13-18

'La Barranca' izeneko Errioxako Memoria Taldeak egindako erakusketa egongo da ikusgai kultur etxean, urtarrilaren 13tik 18ra (18:00-20:30).

La Barranca hilerri zibil bat da egun, baina gerra zibilean hobi komun bat izan zen, eta bertan lurperatu zituzten ia 400 errioxar errepublikazalaren gorpuak. Hauen alargun, arreba eta alabek ezkutuan joan behar izan zuten bertara urte luzez, errepresioen beldur, hildako senideak gogoratu eta ohoratuz. Eta, hain zuzen, beltzez jantzita joaten ziren emakume horiek omentzeko memoria lekua da *La Barranca*, Kultur Intereseko Ondasun izaera daukana.

► **KANTAUTOREA.** Urtarrilaren 15ean Paco Martin kantautoreak erakusketa aurkeztuko du 19:00etan.



ikastaroa

Ekialdeko tradizio espiritualak aztergai

Munduan gehien irakurri diren eta kultura handiak gehien markatu dituzten testuen berrirakurketa egiteko tailerrak egingo dira Oñatin, Agora elkarteak, Ereiten fundazioak eta Gune elkarteak antolatuta, udalaren laguntzarekin.

Aurreko ikasturtean tradizio monoteistetako (judaismoa, kristautasuna eta islama) testuak jorratu zituzten, eta aurten ekialdeko tradizio espiritualetako testuak landuko dituzte. Gaurko munduan eta gure kulturaren ulergarri eta inspiratzaile izango den irakurketa eginez, aro aldaketan murgilduta dagoen gure mundu konplexu eta aldakor honetarako argi printzak aurkitzea da saio hauen helburua.

Sei saio izango dira guztira (azaroaren 30ean egin zen lehenengoa), Joxe Arregi teologoak gidatuta. Hileko azken larunbatetan dira saioak (9:30-18:30) Elkar Hezi ikastetxean (bertan bazkaltzeko aukerarekin). Oñatiko bost herritarrek ikastaroa dohainik (bazkaria izan ezik) egiteko aukera izango dute, udalaren laguntzari esker. Informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi *whatsapp*a 688 824 836 zenbakira.



egitaraua

- **URTARRILAK 25**
Bhagavad-Gita eta Pantajaliren Yoga Sutrak
- **OTSAILAK 29**
Budaren irakaspenak
- **MARTXOAK 28**
Mahayana idazkiak
- **APIRILAK 25**
Txinako jakituria.
- **MAIATZAK 23**
Dao de Jing



hitzaldia

'Maskulinitate berriak: biolentziarik gabeko gizarterako giltza'



Elkar Hezi ikastetxeak antolatuta, Harkaitz Zubiria soziologo eta irakasleak hitzaldia emango du otsailaren 1ean, kultur etxean (11:30). Maskulinitate berrien bidean hezkuntzak duen erronkari buruz hitz egingo du. Gizartea eraldatzeko beharrezkoa den maskulinitate eredu erakargarri eta osasuntsuak hezteko ikas-komunitateak duen garrantzia eta horren inguruan dauden ebidentzia zientifikoen berri emango du. Herritar guztiei irekia. Sarrera doan.

manifestazioa

Urtarrilaren 1In Bilbora

'Atera Bidera. Orain Presoak' lelopean, salbuespeneko espetxe politika behin betiko amai dadin eskatzeko Bilbon (17:00, La Casilla) egingo den manifestaziora joateko deia luzatu du Oñatiko SARE plataformak eta Gaztetxeak.

Emakumeentzako Jabetze Eskola antolatu du udalak

Udazkenean abiatutako egitaraua osatuz, udaberriko Jabetze Eskola antolatu du udaleko Berdintasun sailak. Urtarriletik maiatzera bitartean iraupen eta gai ezberdinen inguruko 8 ikastaro egingo dira. Berrikuntzen artean, emakume migratuei zuzendutako psikologia tailerra aipatu behar da. Plaza mugatuak izaten dira eta ikastaro edo tailer bakoitza hasi aurreko 8 lanegun aurretik eman behar da izena. Jabetze Eskolak emakumeen topaketarako, eztabaidarako zein formaziorako espazio bat eskaintzea du helburu. Hona hemen urtarrilean martxan jarriko diren ikastaro eta tailerrak:

► SEXUALITATE ETA PSIKO- EROTISMO FEMENINOA.

Irakaslea: Pepa Bojó (gaateleraz).
Urtarrilak 21-Martxoak 24
(asteartekak, 18:00) Prezioa: 10€.



► BRIKOLAJE IKASTAROA (Sakontze maila).

Irakaslea: Paz Carbajosa (gazteleraz). Urtarrilak
20-Martxoak 30 (astelehenak, 18:00-
20:15) Prezioa: 20€.

► SARETZE FEMINISTA.

Irakaslea: Mertxe Arratibel (euskaraz).
Urtarrilak 23-Apirilak 2 (ostegunak, 18:00-
20:00) Prezioa: 10€.

► NIRE NI-AK.

Irakaslea: Belén Nevado (gazteleraz). Urtarrilak 25
eta otsailak 1 (larunbatak, 10:00-14:00)
Prezioa: 5€.



'ERROA ETA GEROA' dokumentala Oñatin emango dute

Udaleko Berdintasun sailaren eskutik 'Erroa eta geroa' dokumentala ikusteko aukera izango dugu **urtarrilaren 29an**, kultur etxeko atikoan (18:00). Emakumeak baserrian historikoki izan duen garrantzia eta belaunaldi berriek baserri

ERROA
ETA
GEROA



munduan hartu dituzten bide ezberdinak aztertzen ditu. *Sorginatxurrak* kolektiboak ekoitzi du lana eta Euskal Herri zabaleko belaunaldi ezberdinetako hamar emakume baserriarren testigantzak jaso dituzte; beren lanaren inguruko hausnarketa, keak, kritikak, bizipenak... Dokumental gordina da, eztabaidarako eta hausnarketarako hizpidea ematen duena. Protagonistetako bat Rebeca Maestro oñatiarra da, eta dokumentalaren errealizazioan Itziar Bastarrika oñatiarrak jardun du.


**Aloña Mendi
Taberna**
**EGUNEKO MENUAK
11,50€**
(*Urtarrilaren 7tik aurrera)
Telefonoa: 943 71 60 57

Futbolean ere ondo molidatzen omen zinen txikitan, baina igeriketa aukeratu zenuen.

Bai, Infantiletan oso ondo ibili nintzen, baina 12 urterekin igeriketan goizez entrenatzen hasten zara eta erabaki bat hartzea komeni da, eta gurasoekin hitz eginda erabaki nuen igeriketaren alde egitea, eta ez naiz damutzen.

Gehienek 18 urterekin uzten dute konpetizioa. Zuk, aldiz, 34 urterarte jarraitu duzu.

Bai, ikasketak direla eta, jende askok uzten du 18 urterekin. Neuretako ere gogorra izan zen karrerako lehen urtea, arratsalde, bakarrik entrenatu behar izaten nuelako, baina garbi neukan jarraitu egin nahi nuela.

Inportanteena da, nire us-tez, urte hauetan guztietan bidelagun izan dudana jendearekin identifikatuta sentitu naitzela, eta horrek bultzatu nau dinamika horretan jarraitzera.

Lehiatzeaz gain, tarteka entrenatzaile laguntzaile lanak ere egin dituzu, ezta?

Aloña Mendiko igeriketa saila klub txikia da eta baliabideak oso mugatuak; *Artza* zegoen bakarrik, beste inor ez. Beraz, ahal nuen neurrian, igerilari taldea bitan banatu eta gimnasioko lanean laguntzeko prest egon izan naiz. Nire bakarkako helburuak pittin bat alboratu eta klubaren alde nire aletxoak jartzen saiatu naiz.

Artzak berak eman zizun saria. Berezia?

Iñaki Guridi

hiru hamarkadako ibilbideari aitortza



«Konpetitzera mugatu barik, klubaren alde nire aletxoak jartzen saiatu naiz»

2019ko Kirol Sarietako bat Iñaki Guridi igerilariarentzat izan da aurten. Urtarrilaren 11n emango dio amaiera ia hiru hamarkadako ibilbideari. Igerilari gehienek 18 urterekin uzten diote lehiatzeari, baina Iñakik 34 urtera arte jarraitu du, eta udalak aitortu egin nahi izan du bere ibilbidea eta Aloña Mendiko igeriketa sailarekiko erakutsi duen konpromisoa eta jarrera eredugarria.

Bai, noski. Oñatiko igeriketa *Artza* izan da. Niretako 'fikzioko' pertsonaia bat da, nolabait esateko; 34 urtean ez du entrenamendu bakar batera huts egin. Eredua izan da guretzat; gogorra entrenatzaile moduan, baina eredugarria aldi berean.

Maila pertsonalean zein izan dira zure lorpenak?

18 urtera arte lortu nituen emaitza onenak. Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldun izan nintzen. Haseran estiloetako probak nituen gustuko, eta gero distantzia luzeko *krol* estilokoak. Gipuzkoako distantzia luzeko txapeldun absolutua ere izan nintzen 18 urterekin, eta itsas-trabesia batzuk ere irabazi ditut.

Urtarrilaren 10-11n emango diozu amaiera ibilbide luze honi, ezta?

Bai, igerilekua itxi dutenez, pentsatu nuen une egokia zela nire ibilbideari amaiera emateko. Gipuzkoako Kopa jokatu da Irunen, taldeka, klub bezala lehiatuko gara, eta uste dut une polita izan daitekeela amaiera emateko.

Zubikoako putzuan hainbeste urte eman dituen igerilari batek zer sentitzen du hura obretan ikustean?

Beharrezkoa da obra, eta epe ertainera klubaren onerako izango da instalazio hobekak edukitzea, baina epe motzera arazo bat ere izan daiteke; orain belaunaldi bat galtzen bada, gero hori berreskuratzea urte askotako lana izango da. ■

caravanas



• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**
Otañui zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasonate.com

• **BIZIKLETAK**
• **ERREMOLKEAK**
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**
Otañui zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)

OÑATI KIROL SARIAK-2019

Abenduaren 20an egin zen bukatu berri den urtean nabarmendu diren kirolariei aitortza egiteko ekitaldia. **Ainara Uribarri** mendi korrikalariak jaso zuen kirolari onenaren saria. Talde onenarena Aloña Mendiko gizonezkoen 1. Erregional eta nesken Kadete mailako **futbol** taldeentzat izan ziren. **Haritz Azurmendik** jaso zuen teknikari onenarena, eta **Josu Osari** egin zitzaion pilotaren alde urte luzez egiten ari den lanaren aitortza. Horiez gain, aipamen berezia jaso zuten 25 urte bete dituen Karate sailak, goitibeheretan ari diren Aranguren aita semeek, Felix Sanchez kirol argazkilariak, Iñaki Guridi igerilariak, Markel Irizarrek eta Jon Odriozolak. Herritarren saria Danel Casais txirrindulariarentzat izan zen (Axier Alonso eta Beñat Guridi ziren beste bi hautagaiak).



DUALTOIA

Gipuzkoako duatloi saria Bikuñarentzat



I. Ormaetxea / GIF

Gipuzkoako Triatloi federazioak urtean zehar nabarmendu diren kirolariak saritu zituen abenduaren 19an Eibarren egindako galan, eta Miren Josune Bikuña oñatiarra izan zen sarituetako bat. Duatleta oñatiarrak denboraldi bikaina egin du eta sprint eta distantzia estandarreko Gipuzkoako txapelketak irabazi ditu emakumezkoen V1 mailan. Aurten Sestaoko taldean ariko da Bikuña, Espainiako taldekako txapelketa helburu dutela.

MENDIA

Urtarrileko mendi irteera Adarra mendira

Aloña Mendiko mendi sailak 2020rako antolatutako duen lehen mendi irteera Adarra (819m) mendira izango da, urtarrilaren 19an. Urnietan hasi eta Andoainen amaituko da ibilaldia. Ondoren, sagardotegi batean bazkalduko dute urtea behar den moduan hasteko.





Galaxien haurtzaroa

Gure unibertsoan ezagutzen ditugun galaxiez hitz egingo du Itziar Aretxaga astrofisikari bilbotarrak

HITZALDIA / URTARRILAK 3, KULTUR ETXEAN, 19:00ETAN

Ilartegi Astronomia Taldearen eskutik, hitzaldi interesgarria entzuteko aukera izango dugu urtarrilaren 3an, kultur etxean (19:00). Luxuzko hizlaria izango dugu, Mexikoko INAOEn (Instituto Nacional de Astrofísica, Óptica y Electrónica) lanean diharduen Itziar Aretxaga (Bilbo, 1965) astrofisikaria etorriko baita Oñatira. Mexikoko Teleskopio Milimetriko Handiarekin egiten du lan Aretxagak, eta 1.000tik gora galaxia aurkitu dituzte.

Gaur egun milioi bat galaxia baino gehiago ezagutzen ditugu, eta gure Unibertso behagarrian ehun mila milioi galaxia baino gehiago daudela uste dute zientzialariek. Gure inguruko galaxien kokapenaz eta mugimenduez hitz egingo digu Aretxagak. Galaxiak aztertzeke gaur egungo teknologiak ematen dituen aukerak azalduko ditu, eta gure galaxiaren, Esne Bidearen, sorrerari buruzko azalpenak ere emango ditu.



Zientzialari izateko jaioa

Behin baino gehiagotan adierazi izan du Itziar Aretxagak (Bilbo, 1965) oso umetatik garbi izan zuela zientzialaria izan nahi zuela. Euskal Herriko Unibertsitatean eta Madrilgo Complutensean egin zituen Fisika ikasketak, eta ondoren Astronomia ikasi zuen Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. 'Izar-eraketaz sortutako galaxia-nukleo aktiboen aldagarritasun optikoa' izenburuko tesiarekin lortu zuen doktore titulua.

Cambridge Unibertsitatean eta Max Plank institutuan (Alemania) jarraitu zuen bere jarduna, eta 1998az geroztik Mexikoko Instituto Nacional de Astrofísica, óptica y Electrónica institutuan dihardu ikertzaile lanetan, eta nazioarteko proiektu garrantzitsu askotan parte hartu du, galaxia-kumulua, galaxia-nukleo aktiboak, galaxien eraketa eta bilakaera, eta *Supernobak* aztertzen, besteak beste.



ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...






DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA


695 78 91 04 - 943 04 47 77

ARGITALPENAK

Lapiko artian eta Uribarri Auzoa

Artixa kultur taldeak bi liburu berri argitaratu ditu. **Lapiko Artian** izenekoa Anton Azpiatzuk koordinatu du, eta lau emakume oñatiarrek (Agueda Agirre, Juana Inza, Carmen Echeverria eta Dolores Egaña) eskuz idatzitako 573 sukalde errezeta biltzen ditu.

Uribarri auzoari buruzkoa Mikel Alberdik idatzi du, Artixako kideekin eta auzotarrekin elkarlanean. Bertako historia, pertsonaia eta bizipenak jasotzen ditu. Txokolateixan eta Turismo Bulegoan eskura daitezke, 20 eta 10 eurotan, hurrenez hurren.



IPUIN KONTAKETA EUSKALTEGIAN URTARRILAK 23, 18:00

'Basoaren alaba'

Leire Zinkunegi ipuin kontalariaren bisita izango dute udal euskaltegian urtarrilaren 23an. Betidanik gustatu izan zaio bizitzarako baliagarri zaizkion kontuak eta ipuinak entzuleei kontatzea, antzeztea eta plazaratzea.

"Helduekin euskaraz partekatzen saiatzen naiz bizitza, heriotza, natura, lana, harremanak, emozioak, bidaiak, hausnarketak...bizi-balio ezberdin eta ugariak, gorputz eta ahozko transmisio gozo, atsegin eta parte hartzailean, helburua izanik euskara gertu-gertukoa sentitzea, ikasketa prozesuan garrantzitsua baita norbanakoaren barne sentimendu, hausnarketa eta jakinduriarekin bat egiten duten ekintzak lantzea. Ordu eta erdiko saioan, hiru ipuin kontatu, haietan landutako gaien inguruan berba egin, hausnartu eta sorrarazi dizkiguten emozioak partekatuko ditugu" adierazi digu.



URTARRILEAN UDAL LIBURUTEGIAN

Ostegun kontalariak



Ohi bezala, hileko azken ostegunean haurrei zuzendutako ipuin kontaketa saioa egongo da Haur Liburutegian, urtarrilaren 30ean (18:00). Oraingo hau 6 urtetik gorakoentzat izango da, Ixabel Agirresaroberen eskutik. Gonbidapenak urtarrilaren 20tik aurrera.

AIALDIA

Beskoitzeko ikastolaren aldeko jaialdia, Manex Pagola ardatz hartuta

Iaz hil zen Manex Pagola abeslari eta euskaltzaina ardatz hartuta, laguntza premian dagoen Lapurdiko Beskoitzeko ikastolaren aldeko jaialdia egingo da otsailaren 2an, Mikel Goiaingeruaren elizan, 18:00etan. Iparraldeko hainbat abeslariak (Pantxo Carrere, Michel Ducau, Iñaki Dieguez, Pantxix eta Marie Bidart, Mattin Lerissa, Maialen Errotabehere...) parte hartuko dute, eta baita Oñatiko Juan Valls, Iñigo Arrazola eta Ander Etxaniz musikariek ere. Gainera, ekitaldia borobiltzeko, Beskoitzeko ikastolako eta Txantxiku ikastolako haurrek abesti pare bat kantatuko dute.

Jaialdi horretaz gain, **Elkartasun Krosa** ere egingo da (otsailaren 7an, ziurrenera). Oñatiko plaza inguruan izango da, eta bertan mokadutxo bat hartzeko aukera ere egongo da.

IRAKURLE TALDEAK

Psikologiako irakurle taldeak urtarrilaren 7an (18:30) izango du bere saioa, Silvia Fondrak gidatuta, *Veinticinco horas en la vida de una mujer* (Stefan Zweig) liburuaren inguruan.

Gaztelaniako Tertulixan taldeak hilaren 21ean (17:00 eta 18:45) bilduko dira, *El mundo deslumbrante* (Siri Hustvedt) liburua aztertzeko, Iván Repilak dinamizatuta.

Euskarako taldea hilaren 28an elkartuko da, *Jekyll doktorearen eta Hyde jaunaren kasu bitxia* (L. Stevenson) liburua aztertzeko, Yurre Ugartek gidatuta. **Idazketa Lantegiko** hurrengo saioak hilaren 14 eta 28an izango dira, Joxe Mari Iturralderekin

TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



Bertso saioa

Gipuzkoako txapelketako finaleko sei bertsolari ariko dira Oñatin. Zubikoan, 22:30

**Antzerkia**

Mari Errauskin ipuin klasikoaren moldaketa Glu Glu taldearen eskutik Santa Ana, 17:00 (3,5€)

MUSIKA**URTARRILAK 3 / 19:30
WINTER'S SONG**

Hots Abesbatza eta ganbera orkestraren kontzertua. Sarrera, 8€ (Txokolateixan) [Agustinoen elizan](#).

**URTARRILAK 4 / 17:00
GABONEN AURKAKO KONTZERTUAK**

Ansia, Dizerdit, Arrotzak, La última bala, Régimen de terror eta *Piketa* taldeak (5€). [Antixena gaztetxean](#).

**URTARRILAK 4 / 18:00
KOLORETAKO MUNSTROA**

Ganbara Txiki abesbatzaren ikuskizun musikala. Sarrera, 8€ (10 urtera arte, 5€) Txokolateixan salgai. [Santa Anan](#).

**URTARRILAK 6 / 12:45
MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**

Lehenengo kalejira (11:00) eta ondoren kontzertua. [Santa Anan](#).

**URTARRILAK 10 / 21:00
GOI & BEGO+TXAKURRAK**

Arrasateko punk-rock taldeak [Ikatz tabernan](#).

**URTARRILAK 12 / 12:30
DIENTES DE LUNA**

Rock talde gernikarrak bere

AGENDA

URTARRILAK

19

GAG MOVIE

Yllana taldearen antzezlan berria. Zazpigarren arteak eta antzerkiak bat egingo dute. Lau aktorek erakutsiko digute nolakoa den zinea [Santa Anan, 19:30 \(10€\)](#)

azken diskoa aurkeztuko du (5€) [Gaztelekuan](#).

**URTARRILAK 17 / 21:00
AZKEN SUSTRAIAK +
REBEL NOISE**

Goierriko eta Arrasateko punk taldeak [Ikatz tabernan](#)

**URTARRILAK 19 / 19:30
BIRKIT**

Birkite Alonso bakarleri gasteiztarraren rock-folk doinuak [Itturri tabernan](#).

**URTARRILAK 31 / 22:00
LETAGIN**

Oñatiko rock taldearen kontzertua [Antixena gaztetxean](#).

DANTZA SAIOAK**URTARRILAK 4
SWING DANTZAK**

Oñatiko Swing taldeak antolatuta. Goizean klaseak eta iluntzeko 21:00etatik aurrera dantza jaialdia. [Gaztelekuan](#).

PAILAZOAK**URTARRILAK 12
EKAIN TXOU**

Ekain Iburguren artistak hurrei zuzendutako showa eskainiko du beste urte batez. [Gaztetxean](#).

KANTU SAIOAK**URTARRILAK 25 / 12:30
HERRIXA KANTUAN**

Ikastola eta musika eskolaren eskutik. [Foru plazan](#).

DOKUMENTALAK**URTARRILAK 17 / 19:00
'SOBREVIVIR'**

Txilen bizi izan den prozesu historikoaren inguruan Usurbil, Lasarte, Donosti eta Oñatiko lau ikaslek egindako dokumentala. [Gaztetxean](#).

**URTARRILAK 29 / 18:00
ERROA ETA GEROA.**

Emakumeak baserrian historikoki izan duen garrantzia aztertzen duen dokumentala. [Kultur etxean](#).

IKASTAROAK**URTARRILAK 18 / 16:30
ELEKTRIZITATE -
MANTENIMENDUA**

Elektrizitateko oinarrizko konponketak egiten ikasteko. Dohainik. [Gaztetxean](#)

**URTARRILAK 25 / 16:30
PHOTOSHOP TAILERRA**

Kalean ikusi ohi ditugun kartelak diseinatzen ikasteko. Ez da esperientzia edo ezagutzarik behar. Aukera paregabea. [Gaztetxean](#)

smk

san miguel kooperatiba

943 781 217

kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

EGUR-LAN

ARROZTEGIA
LIMABAR S.A.L.

BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)

TEL FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com

www.egur-lan.es

HAUR JOLASAK

URTARRILAK 3-4 GABONETAKO JOLAS PARKEA

Ohe elastikoak, puzgarriak, tailerrak... Goizez (11:00-14:00) eta arratsaldez (16:30-20:00). Egun erdia 3€, egun osoa 5€. Zubikoa kiroldegian

URTARRILAK 3 / 10:30 OÑATI EZAGUTU JOLASTEN

Turismo bulegoak antolatutako jolasa. Turismo bulegoan

ESPELEOTXIKI

URTARRILAK 4/ 10:30 LEHOIAREN BILA

Gutxieneko adina, 6 urte. Izen-ematea: 943082000. Arrikrutz-Oñatiko Koba.

GURASO ESKOLA

URTARRILAK 21 ETA 28 EMAKUMEEN AURKAKO BORTIZKERIAREN PRE- BENTZIOA TXIKITATIK

Bi eguneko tailerra. Euskaldun Berria gelan.

ERAKUSKETAK

URTARRILAK 11 ARTE ARGAZKIGINTZATIK ABSTRAKZIOA

Pedro Luis Ormazabalaren argazki eta margolanak. Kultur etxean.

URTARRILAK 13-18 MUJERES DE NEGRO

La Barranca Memoria Taldearen eskutik. Kultur etxean.



Hileko gomendioa

Neguko Gida argitaratu dute eskualdeko udal liburutegiek, adinka sailkatutako liburu, CD eta DVD gomendagarrien zerrendarekin. Liburutegian eta www.oñati.eus webgunean kontsulta daiteke gida, eta liburutegian bertan daude eskuragai gidan gomendatzen diren dokumentuak.



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16
Urtarrilak 7, 15, 16, 24, 25 eta 26.
Otsailak 3 eta 4.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22
Urtarrilak 8, 9, 17, 18, 19, 27 eta 28.
Otsailak 5 eta 6.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58
Urtarrilak 10, 11, 12, 29 eta 30.
Otsailak 7, 8 eta 9.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28
Urtarrilak 3, 4, 5, 6, 13, 14, 22, 23 eta 31. Otsailak 1 eta 2.

ZINEA



Urtarrilak 2 - 6

ZINE KLUBA:

Madre NAGUSIAK:
La odisea de los Giles
GAZTETXOAK:
Jumanji: siguiente nivel



Abenduak 9 - 13

ZINE KLUBA:

A la vuelta de la esquina NAGUSIAK:
Puñales por la espalda
GAZTETXOAK:
Turuleka oiloa



Urtarrilak 16 - 20

ZINE KLUBA:

Ventajas de viajar en tren NAGUSIAK:
Dio mío, pero que te hemos...
GAZTETXOAK:
Espias con disfraz



Urtarrilak 23 - 27

ZINE KLUBA:

Los miserables NAGUSIAK:
Richard Jewell
GAZTETXOAK:
Jugando con fuego



MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZA ERRENTAN ematen dugu. Deitu: 634896206 / 943533691.

GARAJE ITXIA errentan ematen da San Lorentzoko 9 zenbakian. 657716385.

ONATIKO BIKOTE BAT gara eta errentan hartuko genuke etxe bat. Erosteke aukera ere baloratzeko prest egongo ginateke. 653 710 456.

ONATIKO EMAKUMEA etxe partikularretan orduka lana egiteko prest: garbiketetasunak, erosketak, plantxa, adinekoei konpañia.... 688 603 052

ODOL ATERALDIA

URTARRILAK 17 / 17:00-19:00
Enpresagintza fakultatean, 17:00-19:00



Zure etxebizitza hobetzeko prest

Amaia igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Baserrien eta eraikinen zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE)
-Ilogailu eta 0 kotara proiektuak -Fatxadak isolatzeko proiektuak
tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati





(*) Itten: arrastua, pistia

>> JAKINGARRIXA

Etxe izenak (3)

Hainbat etxeren izenak pertsona izenetatik datoz. Herrixan badogu holako mordua, hau da, etxeko jabiaren izena hartu dauein etxiak, esaterako: Pako, Rita, Silbestra, Bartolo, Andina, Lukas, Pedro, Migel, Joxe haundi, Kaxinto, Kaximira, Juanitosia, Santos, Romulo, ... Normalian izen horreik eztira izaten ofizialak, jentia bere artian entendituko ebalten dittuanak baiño. Hona hemen, bada, pertsona izena dakoin herriko lau etxeren erretratuak:

*Martoluen*a ingurua lehen*Matingua* kale-baserrixaElorriaga etxia (*Lukasena*)
(Kale Barrixa - Atzeko kale)*Martoluen*a ingurua gaur egun
(Kurtzebide kalia)*Matingua* eguen lekua
(Lazarraga kalia)*Donpedruena*
(Kale Barrixa - Atzeko kale)>> EUSKERAZ EGOGI: **Bat** eta **Bera**

Euskera estandar edo batuan ez letxe, geure berbetian **azentuaren bittartez** bereizten dittugu "bat" artikulua zihaztubagia (erderazko 'un, uno, una') eta "bát" inddargille funtziñua beteten dauena (erderazko 'el mismo, la misma'). Horra hor azentuak zer inportantzia dakon esanguria desbardinketarunzkuan. Ikusi degigun batian eta bestian zela egitten dan, oso kuriosua da eta. Euskera estandarrian, hirugarren aukeria, *ber-* aurrikixaren bidez sortutako erakusle inddartuakin egitten da.

Zer edo Nor: *Etxe bat saldu dostei, apartamentu baten orde* (una casa)

Etxe bát saldu doskue, baiña, bixoi! (la misma casa)

Etxe bera saldu digute, baina, bioi! (la misma casa)

Zein: *Horreik be ama / aitta baten umiak dira* (de un padre o una madre)

Horreik danak ama / aitta baten umiak dira (del mismo padre o madre)

Horiek denak ama / aitta beraren umeak dira (del mismo padre o madre)

Nun: *Uhe baten egitten dogu lo, eta ez litera baten* (en una cama)

Uhe baten egitten dogu lo (en la misma cama)

Ohe berean egiten dugu lo (en la misma cama)

Nungo, nundik, nora, norako, noraiño eta **zeiñekin** kasuetan, behintzat, bardin egitten dogu.

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Uribarriko ikasliak teatrua egitten

Mikel Alberdik *Artixa* taldeko kideekin eta auzotarrekin elkarlanean argitaratu duen *Oñatiko Uribarri auzoa* liburutiik atara dogu argazki hau. 1957 ingurukua da eta Uribarriko eskolako ikasliak agerketan dira bertan. Gerra osteko bigarren hamarkada aldera teatrua egitten euen auzoko eskolako umiak, Satur Murga maistriaren eta Juan Mujika abadiaren zuzendaritzapeian. Gabon aurtxuan izaten ziran ikuskizunok, erderaz, jakiña, artian frankismua inddarrian eguen-eta.

Barrenetik hasitta eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue artista gaziok:

Beheko illaran, kamarera jantzitta: Maribi Galdos, *Otadui Haundikua*; Maixabel Kortabarría, *Gogordokua*; Lurdes Intza, *Azkarraga Erdikua*, Mari Trini Txintxurreta, *Datustegikua*; Karmen Galdos, *Aingerukua*; Juanita Letamendi, *Soldadukua*; eta Arantxa Agirrebaltzategi, *Barrenekua*.

Bigarren illaran: Juanita Kortabarría, *Gogordokua*, honen atzian Anita Agirrebaltzategi, *Baltzategikua*; aurrian Milagros Igartua, *Sagastizabalgua*; honen atzian Juli Elkorobarrutia, *Azkarragako Errotakua*; honen aurrian eskumatara Begoña Letamendi, *Soldadukua*; atzeratxuago Ana Mari Galdos, *Aingerukua*; Arantxa Urzelai, *Urzelaikua*; Felix Igartua, *Sagastizabalgua*; Juanito Biain, *Maistro Zaharrenekua*; Jabier Intza, *Azkarraga Erdikua*; Jabier Txintxurreta, *Datustegikua*; Migel Mari Intza, *Azkarraga Erdikua*; eta Jexus Biain, *Maistro Zaharrenekua*.

Hirugarren illaran: Mari Karmen Agirrebaltzategi, *Barrenekua*; Eloisa Letamendi, *Zelaakua*; Maribi Agirrebaltzategi, *Barrenekua*; X.X., burua bakarrik ikusten xakona; Antonio Agirrebaltzategi, *Baltzategikua*; Julio Bikuña, *Tabernakua*; Kruz Mari Galdos, *Aingerukua*; Roke Biain, *Maistro Zaharrenekua*; eta Mari Karmen Idigoras, *Soraluzekua*.

Laugarren illaran: Andres Koratabarría, *Gogordokua*; Nazario Galdos, *Otadui Haundikua*; Emilio Urtzelai, *Urtzelaikua*, Andres Beitia, *Otadui Txikikikua*; Bixente Intza, *Azkarraga Erdikua*; aingeru jantzitta Mari Paz Letamendi, *Zelaakua*; eta Josefina Elkorobarrutia, *Azkarragako Errotakua*.

Bosgarren illaran: Antonio Bikuña, *Tabernakua*; erdi tapauta Luis Biain, *Maistro Zaharrenekua*; Mari Pilar Agirrebaltzategi, *Barrenekua*; Mari Nieves Bikuña, *Txopekua*; honen aurreian justuan agiri dana Abelina Bikuña, *Txopekua*; Rosarito Azpiazu, *Egikuan bizi zen legazpiarra*; eta Arantxa Aranburu, *Urtiagaiñekua*.

Fotografixia Otadui Txikiko Felisa, Karmen eta Kontxita Biain ahizpek eskuratutakua da eta argibiderik gehixenak be eurenak dira.



GUZTION IZENEAN ETA GUZTIONTZAT

Urte berri on!

Herri integratzaile, hezitzaile eta osasuntsu baten alde

OBSESIONATU GABE, DISFRUTATU!

Elikatzen
Pausatzen
Maitatzen
Laguntzen

Eskertzen
Mugitzen
Dibertitzen
Arnasten



Oñatiko
Eskola Kirola

